

AMOREBIETA-ETXANOkO HIZTEGI ETNOGRAFIKOA

Egilea: J. M. Etxebarria L.

Itaunketa batzeko laguntzaileak:
Gotzone Bilbao eta Larraitz Uriarte.

EUSKAL FONEMA KONTSONANTIKOAK
(Euskaltzaindiaren idazkeraz)

AHOSKUNEA -ko

AHOTS MOLDEA- KARI	Ezpainetako	Ezpain- hortzetako	Hortzetako	Bizkar- hobietako	Goi- hobietako	Sabaiaur eta sabaiko	Beloko	Glotisko
Leherkari Gorrek	p		t			tt	k	
Leherkari Ozenak	b		d			dd(y)	g	
Sudurkariak	m				n	ñ		
Frikariak		f					(j)	h
Frikari Txistukariak				z	s	x		
Afrikariak				tz	ts	tx		
Saiheskariak					l	ll		
Dardarkari bakuna					r			
Dardarkari askotarikoa					rr			

EUSKAL FONEMA eta SOINU KONTSONANTIKOAK
(Zornotzako euskaraz)

AHOSKUNEA -ko

AHOTS MOLDEA- KARI	Ezpainetako	Ezpain- hortzetako	Hortzetako	Bizkar- hobietako	Goi- hobietako	Sabaiaur eta sabaiko	Beloko	Glotisko
Leherkari Gorrek	p		t			tt	k	
Leherkari Ozenak	m		d			dd(y)	g	
Sudurkariak	m				n	ñ		
Frikariak		f					(j)	
Frikariak Txistukariak					s	x		
Afrikariak				tz		tx		
Saiheskariak					l	ll		
Dardarkari bakuna					r			
Dardarkari anitza					rr			

AURKEZPENA

Lan honek eta antzekoak beti behar dabe azpiegitura bat. Eta azpiegitura atontzeko laguntzak derrigorrezkoak izaten dira. Baneukan gogoia gure herriko euskara ezagutzeko. Inguruetako herrien antzekoa da.

Baditu atal interesagarriak, beste atal batzuetan hutsuneak eta galerak agertzen dira. Baina batez bere auzoetan ahal izan daben eran, asabengandik ikasitako euskara erabili izan dabe. Eta holan gorde izan dabe, ez eskolaren euskarririk barik, ez irrati-telebistaren euskarririk ezagutu barik, eurena zalako, euren nortasunaren ezaugarri nagusi hau gorde gura ebelako.

Herriko etnografiaren inguruan zeozer batuta badaukat neure nortasuna eta herriko nortasuna ezagutzeko asmoagaz eginda. Bide hori ez neban berez hartu. 1954an nire baserriko berbeta horrek baeukala gramatika bat eta idatzi eta erabili behar zala erakutsi eustan 'El Karmelo' ikastetxean Sebastián Lejarza Gorostizak, edo A. Eliseok. Bere nagusi batzuk hartutako erabakia pozik bete eban gugaz.

Geroago konparaketak egiten hasi nintzen, eta konturatu nintzen pedagogia hori askoz aurreratuagoa eta gizatiagoa zala, S. Isidroko auzo eskolan 4-6 urte lehenago euki genduna baino. Maistreak euskaraz egiten gendunean 'Hable en cristiano' esaten euskun. Lanaren zati hau hasteko bultzadaxoa EKIN enpresak emon eustan. Joseba Azkuenaga jaunak eta zuzendaritza taldeak erabaki eben laguntza txiki bat eskeintzea.

Gero Eusko Ikaskuntzako Hizkuntza eta Literatura sailean aurkeztu neban egitasmoa eta herriko udaletxeari proposatzea pentsatu eben. Eta udaletxeak onartu eban. Udaletxeen zeregina industri esparruak sortzea bada. Edo herrirako ura ekartea eta kaleak konpontzea eta parkeak eraikitzea. Baina herriaren ondasun ez materialak gordetzea eta sustatzea ere bada. Euskalerrri honetan badago arrisku bat: itxurakeria da, A. Sagarna euskalzainaren hitzetan. Ez dot katiatu gura nire burua itxurakerietan. Hemengo berbetearen gomutapena jaso eta gorde gura izan dot. Ea %90 herrian euskalduna zeneko gomutapena. Eta hemen topau dodazan lehenagoko euskal lagin batzuk be erantsi dodaz. Gure aurretikoen ekarria be gogoratu behar dogu. Danak ez dira zornotzarrek idatziak, baina bai herri honetako esparruan topau dodazanak. Lan hau egiteko laguntzaile batzuk be izan dodaz: Gotzone Bilbao eta Larraitz Uriartek itaunketaren zati batzuk batu deusteez lekukoaren ahotik. Baina horrek nik berrikusi

behar izan dodaz. Ordenagailuan gauza batzuk idazteko Carmen Blancasen laguntza euki dot. Testo zaharrak idazteko Peilo M. Ezkerrok lagundu deust. Eta ordenagailuan hau dana dotore ipintzeko Azterlan laboratoriko Julián Izaga jaunak ateak zabaldu deustaz eta Silbia Martinez eta Samantha Trejo, bertako langile biren laguntza eskeini. Euskarak iraupenik gura badau, euskaldun guztien laguntza beharko dau, ama hizkuntza euskara dabenena, eta euskara jakin barik euskara onartzen daben guztiena.

Amorebieta-Etxanoko euskararen berezitasun batzuk

Fonetika arloan

Hemen aurkezten dodan argazkia fonetika artikulatioran oinarrituta doa. Fonetika akustikoak laboratoriko azterkerta eta beste bitarteko asko behar ditu. Eta oraingoz ez daukadaz. Gerora begira hori be herriaren gomutapen historikoa da, harrizko monumen tu eta bestelako ondasun batzuen parean. Eta erabakiak hartzeko eskubidea deukeenak konturako dirala behingoan uste dot. Eta monumento bizia dan herriko berbeta sakon ezagutzeko, ipiniko dabezala, gaurko gizarteari dagokion neurrian. Bost fonema bokaliko dagoz euskara osoan legez: i, e, ahoaren aurrean, a erdian, eta o, u atzean. Ez egonkortasuna edo aldatzea da fenomeno nabarmenea, beste alboetako euskalkietan lez. Euskararen erdi gunean, egonkortasuna handiagoa da.

Itaunketa egiteko metodoa. (J. M. Etxebarriak prestatuta)

Ez hasi hizkuntzalaritza kontuekaz edo hau dakizula edo bestea dakizula eta holakoekaz. Jakituria guztia atean itxi behar da, holako itaunketa bat egiteko etxe batera baxotxa joaten danean. Itxi alde batera, erlejinoa kontuak edo política kontuak. Eurak zeozer esaten badabe entzun, eta interesgarria bada, etxetik urten eta gero bakarrik zagozagozanean, idatzita jaso.

Itaunketa hasten dozunean, lehelengo gaia aurkeztu: 'berba guztiak zeru eta lainoei buruz izango dira', esaterako. Eta zuk gogoratu nik erderaz itanduko deusudan berbaren euskal parekoa.

Erderaz itandu berbea fitxan begiratuta: sol euskize

Erantzuna emoten badau, beste itaun bat egin: diez soles?

Ez bada gogoratzen, berbea aldatuta aitatu: la luna. Ez daki. Orduan antzeko forma bat aitatu: aratargi edo holako zeozer.

Ezelan be gogoratzen ez bada, orduan forma osoa emon: iretargize . Berba hau ezagutzen dozu?

2.0. Datoan lekukoak esaten dauan erantzuna jaso, eta erantzuna batu kutsukoa bada, A) ipini ondoan

B) bizkaierazkoa bada;

D) herrikoak direnak oso gitxi dira; eta euskañol motakoa bada,

E) idatzi.

2.1.1 Berba hau ezaguna da hemen ez?

2.1.2 Berba hau gitxi ezagutzen da hemen eta gitxi erabili?

2.1.3 Berba hori entzun dot baina hemen ez da erabiltzen?

Etxean euskeraz egiten dozue: egun osoan ala batzuetan euskeraz eta beste batzuetan erderaz.

- euskeraz gehiago, erderaz gitxiago
- euskeraz gitxiago, erderaz gehiago
- Telebista zenbat denpora euskeraz?
- Zenbat denpora erderaz?

Plazan edo dendan:

- Euskeraz ala erderaz gehiago?
- Aintamentura zoazanean euskeraz ala erderaz gehiago?
- Medikuagaz: euskeraz ala erderaz gehiago?
- Abogaduagaz euskeraz ala erderaz gehiago?
- Albaiteroagaz euskeraz ala erderaz gehiago?
- Elizan euskeraz ala erderaz gehiago?
- Zuen lobatxoak euskeraz ala erderaz egiten dabe gehiago?
- Hemen auzoan euskerea ala erdereak erabilten da gehiago?
- Euskerazko liburu edo peridkurik irakurten dozue batzuetan?

GAIEN SAILKAPENA

1.- ZERUA ETA ATMOSFERAKO FENOMENOAK

Zerua eta izarrak
Haize, laino, euriak
Hotza eta edurra, leia /izotza

2.- DENPORA ETA DENPORAREN BANAKETA

Urtearo, hilabete, eguna, eta egunbarrua
Urteko jaiak

3.- ERLIEBEA ETA TOPOGRAFIA

Zoruaren eta luraren formak, errekek eta bideak
Itxasoa

4.- PERRETXIKO ETA SETAK

5.- FLORA

Basalandarak
Bedarrak
Pertsonak jateko bedarrak
Soloko eta etxondoko ortuari, eta frutudunak

6.- FAUNA

Ugaztun edo mamiferoak / Hegaztiak / Arrain eta moluskoak / Intsektoak

7.- ABERE HEZIAK

Behikiak / Zaldiak / Txarriak / Ahuntz eta ardiak / Txakur eta katuak /
Erleak / Oiloak eta konejuak

8.- ETXEA ERAIKUNTZA LEZ

Lurrak, eraikuntza, teilatua, horma, olezko atalak, ate eta bentanak

9.- ETXEA BIZILEKU

Etxeko gelak: eskatza, sua, eskatzeko tresnak, logelak.
Argia eta ura.

10.- ETXEA, EKOIZPEN LEKUA

Korta, sabai, etabar. Tresnak ekoizpen lanetarako: buztarria, burdia.

11.- KANPOKO LANAK (A)

Areak eta solo lanerako tresnak

12.- KANPOKO BEDAR LANAK (B)

Landak eta bedar sikua prestazea eta lantresnak

13.- BASERRI LANAK ELIKADURARAKO (D)

Ortuariak, zerealak, garia eta garijotea

14.- BASERRI LANAK EDARIAK EKOIZTEKO

Mahasti, txakolin eta sagardoa eta lantresnak

15.- ESNEKI ETA MANTEKILAK

Gazta eta esne janariak eta tresnak

16.- OGIA

Labea egin eta goxokiak, eta tresnak

17.- ARRANTZA ERREKAN ETA TRESNAK

18.- ESKATZA JANARIAK EKOIZTEKO

Janariak egosi edo prijidu: lantresnak.
Janarieie zaporea emoteko lagungarriak

19.- ETXEAREN GARBIKETA

Arropa garbiketa eta lexiba
Jostura eta adabakiak: lantresnak
Lana, eta linoa: lantresnak

PERTSONEA

20.- GORPUTZA

Gorputzaren atalak eta enborra

21.- HAURTZAROA

Ume jaio barria
Olgeta eta denporapasak

22.- KUALITATE ETA MUGAK

Sentzunak eta kloreak

23.- SEXUALITATEA eta UGALTZEA

24.- JANTZIAK

Jantzi, oinetako eta ule orrazketak

25.- PERTSONAREN ELIKADURA

Gosea eta egarria

26.- NAGUSIEN JOKO ETA LIBERTITZEA

27.- FAMILIA

Artekotasuna, semealabak, ezkontza

28.- GAI XOAK ETA HERIOTZA

Era guztietako gaxoak, botikak eta heriotzea
Heriotzearen ospakizuna

29.- ERLEJINOA

Siniskerak eta erlejinoa

30.- GIZARTEKO ERAKUNDEAK

Udaletxea eta administazinoa

31.- OFIZIO EDO BIZIBIDEAK (A) Autonomoak diranak

Abarketerua, Errotaria, Hargina, Harotza, Errementaria, Sesterua, Ollerua,
Burdigileak, baserri lanerako tresnagileak

32.- OFIZIO EDO BIZIBIDEAK (B) Fabrikako edo enpresako langileak

Lana, jantziak eta tresnak

33.- LAN KOMERTZIALA

Dendak, plazak eta periak. Kinkileru eta lapiko konpontzaileak

34.- PIXU, NEURRI eta DIRUAK

35.- INDUSTRIA MAILAKO LANAK.

Burdina eta galtzairutik kanpo, kimika, papera etabar

- Dibur ALDAZABAL (1912 -1996) eta emaztea Gregoria ARETXAGA (1912-2003)
- Fernando ALDAZABAL F. A. (1951)
- M^a Gloria ALDAZABAL M. G. A.
- M^a Paz APRAIZ M. P. A.
- Florencio ARANA F. A. (1910-1984)
- Agustin ARESTI (1918-
- Gregorio ARTABE G. A.
- Elias ATUTXA E. A. (1920)

- Alberto BARRENETXEA A. B. (1939)
- Fortunata BEDIAGA F. B.
- Juanita BILBAO J. B. (1921)
- Pedro BILLARREAL P. B.
- Margarita ELORRIAGA M. E
- Inazio EREÑO (1933)
- José ETXANOJAUREGI J. E. (1922)
- Josefa ETXEBARRIA (1913)
- Claudio ETXEBARRIA (1909- 1999)
- Txomin EUBA Tx. E.(1924)
- Félix GORRIÑO F. G.
- José GURUZIAGA J. G.
- Agustín IBARRA A. I. (1930)
- Mertxe IBARRA M. I.
- Anastasio LARRUZZEA A. L. (1936)
- Jose Mari LAUZIRIKA J. M. L. (1946)
- María LINAZA M. L. (1915)
- Kristina OTXANDATEGI K. O.
- Julian SARRIONANDIA J. S. (1935)
- Felisa URIA F. U.
- Inazio ZEARRETA (1935) eta bere emaztea M. Kontxi AURRE I. Z.
- Jesus ZEARRETA J. Z. (1924)
- Juan ZURINAGA J. Zu. (1922-2005)
- MUJIKA BERRONDO, Plácido, Diccionario castellano-vasco, 2. arg., Bilbao, Mensajero, 1972; Diccionario vasco-castellano, Bilbao, 1981, tomo bi.
- AKESOLO, Lino, LAFITTE, Pierre, DE LA SOTA, Pedro, Diccionario Retana de Autoridades, Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1986-1994, 8 tomo.
- MICHELENA, Luis eta taldea, Orotariko euskal hiztegia, Bilbao, Euskaltzaindia-Desclée de Brouwer-Mensajero, 1987-2005, 16 tomo.
- AREJITA, A. eta Labayruko Ikastegiko taldea, Labayru Hiztegia, Bilbao, Labayru-BBK Fundazioa-Ibaizabal, 2003.

1. DATU OROKORRAK

1.1 Lurralde historikoa: Bizkaia. Eskualdea: Durangaldea. Epai-barrutia: Durango. Kokapena: 43° 13' 15" N. 0° 57' 15" E. Zabalera: 58'7 km².

Pertsonak dira hizkuntzaren eta bestelako ekintza nagusien euskarriak. Pertsona horreek kokatuta dagozan lurraldea eta gora-behera historikoak azaldu gura dodaz hurrengo orrialdeetan, labur izanik ere.

1.2 Orografia

Lehenago herri bi izan ziren Amorebieta eta Etxanok osatzen dabe lurralde hau. Ibar baten kokatuta dago. Ibar honek baditu 13 klm. luzeeran eta 2 eta gehitxoago zabaleran. Alde bietan mendi kate bi ditu. Iparraldetik 'Bizkaiko Sinklinorioa' izeneko mendi saetsa. Horren barruan honeek dira tontor nagusienak iparraldetik: Torreburu, Arburu (552 m.), Bizkargi (566 m.). Hegoaldean: Gainzorrotz (781 m.) Urtemondo (780); Apala (575 m.), Askurumendi (759 m.), Belatxikieta (662 m.), Bernagoitiburu (781 m.), Betzuenburu (792 m.) Pagotxueta (724 m.), Urrimendi (424 m.). Iparmendebaldean Munezorrotz (519 m.). Eta hego-mendebaldean Burbilla (646 m.) eta Gorritxueta (650 m.). (Iturri. Jesús de Altuna 22-36 orrial. 2. argit. Ezkutuan ataratako liburuxka da 1960-1965 ingurukoa nire ustez. Ez dauka ez imprimategirik ez fetxarrik eta amaieran daukantzakmapa ezin eikean argitaratu orduan.)

1.3 Hidrografia Erreka izenak

Erreka nagusia Ibaizabal da. Horra datoz Iparraldetik Oromino-erreka, Zamalloa-erreka, Etxano-erreka, Arreibi-erreka, S. Martolome-erreka, Aldana-erreka edo Garitondo-erreka; Boroa-erreka eta Marabi-erreka. Hegoaldetik: Betzuen-erreka, Arkotxa-erreka, Maraspera eta Leginetxe errekek.

1.4 Munarriak. Inguruko herriak

Inguruko herriak honeek dira: Iparraldetik Morga, eta Muxikako auzoak: Gorozika, Zugastieta, Maguna eta Ibarruri. Hegoaldetik Igorre eta Dima. Ekialdean Iurreta eta Durango. Mendebaldean Galdakao, Larrabetzu, Bedia eta Lemoa.

HEMEN Mapak. Herria osotasunean eta inguruko herriak

1.5 Komunikazioak

Amorebieta-Etxanoko (edo Zornotzako) erdigunea Bilbotik 19 kmtara dago; Gernikatik 13ra eta Durangotik 10era. Bidekurutzea da Bilbotik Donostiara eta Arratiatik itxasertzera. 634 kaminoak gurutzatzen dau mendebaldetik sortalderantza; eta Arratiatik itsasaldera 6351 komarkalak. Hau Lekeitio eta Bermeorantza doa. Donostia eta Frantziarantza autopista be badago Bilbao-Behobia izeneko. Garai baten baeukan sarrera eta urtekera, baina geroago aldatu eben sarrera erromara, eta orain Bilborantzako sarrera bakarrik dauka. Eusko Trenbidearen burdinbidea be badago Donostiara eta Bermeora. Ganera Durangora eta Ondarrura doazan autobusak eta Lekeitia eta Bermeora doazanak be herri hau gurutzatu behar dabe. Garai baten 1951ra arte Bilbaotik Durangorako tranbia ere bazegoen.

1.6 Herriaren osaketa: 1951ra arte. Etxano herria zen eta bere udaletxea Kaitanan zegoen, Amorebietako udaletxetik hurrean. Amorebieta izena eta Zornotza izena herri honen lur zati biren izenak dira. Amorebieta parrokia inguruan dagon lurraldearen izena da. Eta Zornotza, baserri bat da gaur ere eta inguruko lurraldearen izena. Biak euskal sustraikoak dira. Baina Amorebieta erdal hiztunek erabiltzen dabe. Eta Zornotza, euskal hiztunek. Hizkuntzetan ezaguna den fenomeno fonetiko batetik sortu

da Zorrontza. Metatesia deitzen jako fonetikan soinu bat beste bategaz lekuz aldatzen danean, berba bardinean. Lurrealde honen izena hartu eban merindadeak. Eta hortik sortu zela herriari Zornotza deitzeko ohitura, eta ez Amorebieta, esaten dau Iturrizak. Izen hau gaztelera berba egiten danean erabilten da. Garai baten 634 kaminotik autobiderra sartzeko bidekurutzearen hasieran, hortxe zegon Etxanoko udala. Etxano zen lur errektangulu bat iparraldean, sortaldetik sartaldera; eta Amorebieta beste errektangulu bat hegoaldean, bata bestearen parean. Auzuneak honeek dira alfabetoz: Aldana, Alzibar, Andrandi, Arazotza, Arkotxa-Begiaga, Arrebi, Arrinda, Astepe, Autzagane, Auztoa, Belaustegi, Berna (Bernabeiti), Bernagoiti, Bideaur, Boroa, Derandain, Dudagoitia, Epaltza Ergoien, Etxano auzoa, Euba auzoa, Gane, Garaitondo, Ixer, Kortederra Larrabarrena, Larrea auzoa, Legarrebi, Leginetxe, Marabi, Markes Aresti (Markesaisti), Mekola, Montorra, Ogena, Ogenbarrena, San Antonio, San Bartolome, San Migel, Santa Ana, Santa Luzia, Saratsu bekoa, Saratsu goikoa, Tantorta, Urritxe, Urumin, Zamalloa, Zubibitarte, Zubizabala. Industrialdeak: Astapeko poligonoa, Biarritz poli., Boroa poli., Kondor poli., La Tejera poli., Serpinsa poli., eta Valet poligonoa.

2. BIZTANLERIA

Amorebietako erroldan biztanle honeek agertzen ziren Etxanogaz alkartu aurretik: 1861, 3.340; 1900, 4.610 biztanle; 1910, 4.895; 1920, 5.084; 1930, 5.971; 1940an, 4.321; 1950an, 6.216 biztanle. (E.S.E.D. libururan, frankismoaren garaian egin zenean, biztanlegoaren gora-beherak holako berbakaz estaltzen ditu: 'entre 1900 y 1970...el crecimiento de Amorebieta fue sensiblemente menos que la media de la comarca, principalmente a causa del virtual estancamiento registrado durante los primeros cuarenta años...'. Ez dau ezertarako be aitatzen 1936ko gerra eta ekarri zituen hildako eta atzerriratzeak. Holan idazten da historia.). Etxanon barriz zenbaki honeek agertzen dira: 1.704an 50 su; 1798an 55 su eta laurden bat. 1800ean, 432 biztanle; 1900ean, 944 biztanle; 1910an, 1.062 biztanle; 1920, 1028 biztanle; 1930, 1186 biztanle; 1940, 1080 biztanle; 1950, 1.107 biztanle.

Herri biak batuta egozala holako datoak agertzen dira: 1960, 8.346; 1966, 10.237; 1970, 12.465; 1980, biztanle; 1990, biztanle; 2000, biztanle; 2007an 17.494 biztanle.

3. HIZKUNTZAK

Gaztelera eta euskara dira hizkuntza nagusiak. Gaztelera gehiago erabiltzen da erdi gunean. Euskara gehiago auzoetan. Bizkaieraren ezaugarri nagusiak ditu hemengo berbeteak, helduen artean. Ikastola eta ikastetxeetako umeeek batua, edo euskara estandarra ikasten dabe. Arazoa dago euskararen erabileragaz. Pertsona helduek eta auzoetan bizi direnak gehiago erabilten dabe euskara edozein hartuemonerako.

Herrigunera doazanean sal-erosketak egiten edo edozein ofizinara txikitatik sartut dagon ohitura jarraitzen dabe: erderara jotzen dabe. Hau Frankismoaren garaian euskara galarazota egotearen ondorioa da. Ganera frankismoak, imperialismo guztiek historian zehar egin dabena moduan, bere hizkuntza modernoagoa, kultaagoa eta aurrerakoiagoa lez aurkeztu eban. Umeak be eskolan ikasten dabena gero ez dabe erabilten etxean eta kalean, erderazko komunikabideen indarra hain handia izanik. Azken urteetan Zornotzak etorkinak be hartu ditu. Europako Elkartasunekoak 500 dira 2007an. Honako herrialdeetakoak dira: Alemania, Austria, Britania Haundia, Danimarka, Errumania, Frantzia, Herbehereak, Irlanda, Italia, Polonia, Portugal, Txekia. Mundu zabalekoak barriz, beste lurrealde honeetatik etorri dira: Angola, Argentina, Australia, Bolibia, Brasil, Dominikar errepublika, Ekuador, Errusia, Estatu

Batuak, Filipinak, Gana, Ginea, Ginea-Bissau, Hegoafrika, Kanputxea, Kolonbia, Kongoko Herri-errepublika, Kuba, Madagaskar, Marokko, Mexiko, Moldavia, Niger, Pakistan, Panama, Paraguay, Taiwan, Ukraina, Uruguay eta Venezuela.

4. HISTORIA LABURPEN BAT. ATONKETA FORALA ETA POLITIKOA

Etxano zaharragoa da. Iturrizaren esanez, Ibarruriko Unda Jauregi familiak eraiki eban etxetxo bat 834an. Eta hortik hartu eban herri honek izena. Gero X gizaldian kartulario baten agertzen da izen hau Eggano formeagaz. Eliza X gizaldian eraiki eben lehelengoz.. XVI gizaldian berreraiki eben. Eta 1732an kanpantorrea jaso eben Kalahorrako gotzainaren aginduz. Ganera beirak lehioetan jartzeko agindu eban, hegazti asko sartzan ziralako eta eliza eta altarak zikintzen ebezelako. Zorua lixutzeko agindua be emon eban (NOTA Labayru, VI, 126). Elizaren aterpe ondoan harrizko estela bat agertu zen, Karlomagnoaren garaiko idazkeran. Oraingo elizpea kanposantu izan zen lehenago eta hor be 1449ko hilarri bat agertu zen idazkun bategaz. Erretaula XVI gizaldikoa da, eta arte mailan, balioduna da. Jose Arrinda eta Zarazua, etxanotarrak 10.000 erreal itxi ebazan eliza honentzat, eta diru horregaz konponketa ederrak egin ebezan. XVIII gizaldian M^a Benita de Zelaietak 11.000 erreal emon ebazan eliza honentzat (NOTA Labayru VI, 360). Felipe IVk 1637an gudariak eskatu eutsazanean Bizkaiari, Etxanori 6 gizonezko bialtzea tokatu jakon. (NOTA Labayru, V, 260). Danera Bizkaiak 1000 gizonezko prestatzeko konpromesua hartu eban. 1639an frantzesen erasoei erantzuteko, Bizkaiko jaurerriak ezarri ebazan herri batzuk defentsari ekiteko. Etxanokoak Bermeora joan beharra eukeen. (NOTA, Labayru, V , 281). 1720-30 urteetan jaiak Larrean, komentu aurreko plazan dantzakaz ospatzeko ohitura be baegoan. Albo baten egoan jauregian, Larreako jauntxoa bizi zen eta txistu eta tanbolin dantzen kontra egoan. Haserrea hasi zen jauntxoaren eta komentuaren artean eta 1730ko Karmen egunean prioreak txistularia ekarri eban, eta bere atzetik jende mordía etorri zen.. Jauntxoak nuntzioarengana jo eban eta honek zigor gogorren mehatxua adierazo eutsan prioreari. (NOTA Labayru, VI, 170-171). Gero 1794an Etxanoko armadun batzuk Gipuzkoako muga defenditzera joan ziren. Guda honetan Bilboraino sartu ziren gudari frantziarrak, eta azkenean bakea lortu zen. Gero 1807tik aurrera Bonaparteren guda zabaldu zen eta Zornotzan eta inguruetan Joakin Blake jeneralak armadaren adar bat agintzen eban eta frantziarren erasoari ezin izan eutson eutsi eta atzerantza jo behar izan eban. (NOTA, Iturriza, Azkarraga, 951-952). Gero karlisten lehenengo gerratea etorri zen. Eta ondoren, 1872-1876 urteetan bigarren karlisten gerratea.

Zornotzaren historia beranduago hasten da, XIII gizaldian lurralde hau Gaztelako erregeak Pedro García de Salcedori emon eutsan, Navas de Tolosako gudaldian egindako merezimenduekatik. Salcedo-Ayala jauntxoaren jatorrikoa da Zornoatarren familia, eta honen artekoak hartu eben lurralde hau. Ba ei egozan lehenagoko jauretxeak: zaharrena Andrandegi ei zen; Aldanakoa 844an Askoeta famililiak sortua; Canceladako kondearena; Garay, Zubiaur, Jauregi, Ibarra, Berna, eta Zornoza. Hemen bizi zen merinoa. Torretxe honen jabea XII gizaldi erdirantz, Pedro García de Galindez izan zen, Aialako laugarren jauntxoa. 1445an 'Castroko praile baltzak' izeneko talde batek, diru truke orduko jauntxoaren arteko gudan partaide zirenak, erre eben. Amorebie- tako eliza eraiki ebenean jaurerriko jauntxoaren patronatoa zen. Baina Bizkaia Gaztelan sartu zenean, Juan Iik bere menpeko zen Leibako Santxori agindu eutsan 2.800 marai hartzeko amarrenetatik, eliza konpontzeko. Oraingo eliza 1556an hasi ziren eraikitzen. 1608an bedeinkatu eban

Martin, Eubako abatak, eliza honetako abade zanak. 1780an organo barri bat jarri eben eta erretaula barria. 1770-1773 bitartean. 156 sepultura eta sei altara eukazan eliza honek. Kanpantorre dotorea eraiki eutsoen 1773an. Martin de Zelaieta Liman bizi zanak hainbat liturji jantzi, bitxi eta eki santu eder bat oparitu eutsazan XVIII gizaldi erdirantz. Oromino errekan eta Ibaizabal errekan baegozan bost ola. XVI gizaldian eraiki ebezan batzuk, eta baten batek, Bernakoak, XX gizaldira arte iraun dau. Sustrai horretatik sortu ziren XIX gizaldian burdina fabrika batzuk. J. Jose Jauregik eraiki eban Astapen bat nahiko aurreratua teknologia mailan izan zena bere garairako. Gero Izar sortu eben, eta geroago Forjas. Geroago beste batzuk etorri dira. Bidekurutzean egoteak erraztu egin dau enpresa barrien sorrera, batez be komunikabi- deak hobetu diranean. 1980tik honantza baserriak eta laborantzak atzera egin dauanean, lur sail egokiak gelditu dira, enpresa barriak eraikitzeko, batez be Boroa auzoan. 1509an Pedro Ibáñez de Basozabal eta Teresa González de Belaustegik pobreentzat ospital bat eraiki eben. Oin herrizaingoaren ofizina dagon alderdian udaletxea zegoen. Bertan eskola bat haurrentzat egon zen; kartzela txiki bat eta beste udal zerbitzu batzuk. 1936ko gerran frankisten bonbardaketa baten erre zen dana. Amorebieta izena 1872an karlistek eta liberalek egin eben bake itunagaz alkartuta gelditu da. Urte horretako maiatzaren 24an Serrano jeneralak eta Bizkaiko Aldundiko ordezkariak pake ituna izenpetu eben Belaustegigoitia jauregitxoan. Bizkaiko aldunak hurrengo honeek izan ziren: Urkizu, Orue, Arginzoniz eta Artiñano. Gero Sabino Aranek EAJ sortu eban eta hazi horrek indarra hartu eban herri honetan astiro astiro. Espainiako uriola politikoaren barruan, Alfonso XIIIren monarkiak, Primo de Riveraren diktadura ekarri eban. Gero errepublika, eta Franko jeneralak 1936ko gerra ankerra hasi eban. Eta ondoren barriro diktadura ezarri eban. Garai horretan 1951ko urtarrilean Madrileño gobernuak batu ebazan Amorebieta eta Etxano, herri bakarra sortuz. Diktadura garai luzeak urduritasuna ekarri eban, eta diktadurari biolentziagaz erantzuteko bidea hartu eban 1959 inguruan ETA talde sortu barriak. Herri honetara be iritzi zen jokaera hori, baina gehiengoak diktadurari aurre egiteko bide demokratikoak jarraitu ebazan. Irakaskintza ertaina egiteko aukera herrian bertan 1967ko urrian hasi eban 'Karmelo' ikastetxeak, ordura arte karmeldarren seminario izandako ikastetxeak. Urte batzuk geroago 'Karmengo Ama' neskatoen ikastetxeak bere, bide hau hartu eban. Andres Etxebarria jaunak akademia bat be sortu eban lehenago ikasketa ertainen prestakuntza herrian egiteko, baina azterketak emoteko instituto batera joan beharra eukeen ikasle honeek. Geroago demokrazia garaian Urritxe institutua sortu zen.

5. ELIZAREN ATONKETA

Elizaren banaketari begiraturaz, herri hau, Bizkaia osoa lez Calahorrako gotzaitegiaren barruan egon zen 1869ra arte. Urte horretan Gasteizko gotzaitegia sortu eban Vaticano- ak, Madrileko gobernuagaz akordio bat lortu ondoren. Hor barruan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa egozan. Eta Burgosko artzapezpikuaren barruan, horko eliz probintzian sartu eben. Gero 1950an Batikanoak hiru elizbarruti sortu ebazan: Bilbao, Donostia eta Gasteiz. Bilbao eta Gasteizko gotzaindegiak Burgosko artzapezpikutzaren barruan dagoz eta Donostiakos Iruñakoaren barruan. Orain dala 20 urte Espainiako gotzainek onartu eben Euskalerriko eliz probintzia, baina Madrileko indar politikoek ez dabe onartzen.

6. EGITURA EKONOMIKOA

6.1 Lehen sektorea

- 6.2. Industria eta Eraikuntza
- 6.3 Zerbitzuak

7. PATRIMONIOA. ONDASUN MATERIALAK

7.1 Eraikuntzak Argazkiak: Etxanoko eliza, Andra Mari, Larrea, Lopezen txaleta, Iruene, Lauaxeta ikastola, Bernagoitiko eliza.

7.2 Ermitak : San Pedro Boroan, San Migel Euban. Aitatu Guru. Arregiren liburutik.

8. HERRIAREN JAIAK

Herrian jai asko dagoz. Auzo askok bakotxak berea dauke. Otsailean aratustek ospatzen dira batez be herriko erdigunean. 1980tik hasita indarra hartu dabe. Otsailak 4: Santa Ageda bezperan koruek urtetan dabe abestuten eta batuketa bat egiten, lehenagoko ohitura jarraituz. Maiatzaren 3an, edo domekea ez bada, leheengo domekan Santi Kurtzen Bizkargin eta Eustoako auzoan. Bizkargiko jaia abertzale kutsuko jaia izaten zen diktadura garaian. Maiatzak 8: Bernagoti auzoan S. Migel. Boloak eta erromeria. Maiatzak 15: San Isidro ermitan inguruko baserriarren jaia. Boloak eta erromeria. Larrean meza eta baserriarren bazkaria. Ekainak 3 Erkoles auzoan. Ekainak 13: Eubako S. Antonio auzoan. Ekainak 23 iluntzean auzo guztietan eta erdigunean suak piztutzen dira. Ekainak 24: S. Juan jaia auzo honeetan: Ergoieneko S. Juan; Ofrendoko S. Juan. Ermita bietan erromeria. Bideaur auzoan, Tantorta auzoan, eta Zubizabala auzoan be jai egiten da. Ekainak 29: S. Pedro: Boroa auzoan boloak, herri-kirolak eta erromeria; Saratsu auzoan be jaia da. Uztaileko 1.go domekea: Andrandi auzoan. Uztailak 10 S. Kristobal gidarien jaia. Ixer auzoan be jai. Uztailak 16: herriko jaiak, baina batez be erdi-guneko jaiak. Uztailak 25: Santiago: herriko jaietan aitita-amamen eguna. Uztailak 26: Santa Ana. Demokrazia garaitik hasita danborrada ospatzen da. Uztailak 27: Santanatu: kuadrilen jaia eta ohitura normalak urratzeko jaia. Herriko jaien azken eguna da. Uztailak 31: S. Inazio Bizkaiko lurralde osoan jaia eta Belatxikietako ermitan ere bai. Erromeria. Agorrileko 1. domekea: Bernako jaia. Bertsolariak eta erromeria. Agorrilak 10: S. Lorentzo Montorra auzoko jaiak. Asto probak eta erromeria. Agorrilak 15: Andre Mariaren jasokundea: Etxanoko jaiak. Pilota partiduak, herri kirolak eta erromeria. Agorrilak 24: S. Bartolome. Auzo horretako jaiak. Boloak eta erromeria. Agorrilak 29 S. Luzia. Leginetxeko S. Luzia auzoko jaia. Agorrileko 4.en domeka: S. Bizente ermitan Arkotxa-Bediagako jaiak. Irailak 2: S. Antolin, Epaltzako jaia. Boloak eta erromeria. Irailaren 1. domekea: Euban tren geltokia dagon etxe multsoko jaia. S. Pijon deitzen deutsee jai hau sortu eban familiaren ezizena 'Pijon' zalako. Erromeria. Irailak 29 S. Migel: Dudaiko S. Migel ermitako jaiak. Erromeria eta boloak. Aldana ganeko ermitako jaia. Larrabetzuko lurra da baina Zornotzatik joaten dira jaira. Azaroak 22: Sta. Zezilia, musikariaren zaintzailea. Herriko koruak ospatzen dabe. Abenduak 24: Olentzero. Ohitura hau Oiartzun eta Malerrekan gorde izan zena, hemen ere sartu da ikastola eta ikastetxeen bitartez.

9. PERTSONA EZAGUNAK

Hemen aitatzen dodazan pertsona danak Zornotzan eta Etxanon jaiok dira, A.Onaindia kenduta.

- ABASOLO LEKUE, Juan, (Ambrosio de la Virgen del Carmen) 1904-1982. Karmeldarra, mixiolari Indian. Bertan Viyayapuramgo gotzain izan zen
- ALCORTA, José Ignacio. Apaiz ikasketak burutu ondoren, filosofia ikasketak sakondu zituen eta Bartzelonako unbertsitatean irakasle izan zen.
- ARGINZONIZ ASTOBIZA, Felipe; Bernardo de Jesús karmeldarren artean. (1852-1933). Erromako karmeldarren kontseilu jeneralak teologia irakasle izendatu eban 1877an. Baina 1883an Indiako Malabar lurraldeko misiora joan zen, berak eskatuta. 1896an Manjumel elizbarrutiko apezpiku izendatu eban. Gero Verapolyko artzapezpiku izendatu eban. 1919an kargua itxi eta Karmel Mendira erretiratu zen. Gero Castellóko 'Desierto de las Palmas' komentura etorri zen, eta hantxe hil zen.
- ARGINZONIZ, el político
- BILBAO IMAZ Ezequiel. Ezequiel del Sagrado Corazón karmeldarren ordenan (1862-1938). Arotzako baserri baten jaioa, praile bizitza hartu eban karmeldarren artean. Bost bider probintzial izan zen eta bitartean, ordenako jeneralaren kontseilari, eta jeneral ere 1907-1913 urteetan. Ordena Amerikako kontinentera zabaldu eban. Bostgarren aldiko probintzial kargua 1936an amaitu eban. Eta urte berean bere abadegintzako 50 urteak bete ebazan. Baina aurretik eta geroago kurutzia be etorri jakon, praileen antolaketan 'probintzia' deitzen dan hesparru baten zatiketa zala-eta. Larrean egoala, 1936ko gerragatik erbesteratu beharra izan eban. Frantzian Agen-eko komentura joan zen. Baina 1938an, Frankoren menpean Bizkaia jausi eta gero itzuli zen eta Korellako komentuan hil zen, iritxi eta aste gitxi geroago.
- BILBAO IMAZ, Esteban. Juan José de Jesús karmeldarren artean. (1871-1945) Indiara joan zen Malabarko misiora eta bertan hil zen. Baina han Always-ko seminario ospetsua eraiki eban eta bertan errektore izan zen urte askotan, 1944ra arte.
- ESPINOSA, Andrés 1903-1985.
- GALLARZAGOITIA, Cecilia 1889-1956. Berrizko Merzedean ikasten egon zen barrukukume lez. 1911an nobize moduan kongregazino horretan lehelengo pausoak emoten hasi zen. 1931an Margarita López de Maturana doatsuak beragaz eroan eban Japon, Carolinas eta Marianas uharteetara. Margarita hil zenean, 1935an, Zezizlia aukeratu eban, kongregazino barritua gidatzeko. Espainako 1936ko guda tokatu jakon lehelengo, gero munduko bigarren guda. Sortalde urrunean kongregazinoak eukazan etxe eta lanak desegin ebazan guda ikaragarri horrek eta barriro joan zen lurralde hareetara 1939, 1945, 1947, 1949, 1951 eta 1953an komentu barriak eraikiz Japonen eta Ozeanian. Mexikon eta Estatu Batuetan be fundazinoak eraiki ebazan. Bere kongregazinoko mojen hezkuntzaren ardura handia euki eban eta ganera udan be ikastaroak atontzen ebazan bere kongregazinoko mojentzat. 1954an nagusitzarako beste bat aukeratu eban eta bera lehelengo kontseilari lez ezarri eban. 1955an gaixoaren kurutzia hasi jakon eta hurrengo urtean hil zen. Garaiak eta emakume izateak ipini eutsazan mugak bere gizabideagaz eta sinismenagaz gairitu ebazan, emakumezkoen eta gizonezkoen benetako bardintasunaren bideak zabalduz.
- GARAMENDI, Vicente SJ. 1887-1964. Bilboko Santutxu auzoan badagoz etxe batzuk Garamendi etxeak izenekoak. Ea inork be ez dau gogoratuko jesuita honen abizenetik datorren izena danik. Larrinaga kartzelaren lur zatian eraikita dagoz. Hori bere bizitzako azken ekintza izan zen. Arkotxa-Bediagan jaio zanetik ibilaldi luzea bete eban jesuita honek. Urduñako ikastetxean bere lorratza itxi eban. Baina batez be Bordelen sortu eban 'Solar Español'

erakundea izan zen bere lanik ezagunena. Espainiatik joiazan emigranteentzat sortu eban Alfonso XIIIren laguntzaz. Berak laguntza danentzat emoten eban, baina errepublikako agintariek ez eben ondo ikusi eta arazoak izan ebazan euren aldetik eta emigrante batzuen aldetik. Gero naziek Frantzia harrapatu ebenean, oztopoak gehitu egin jakozan. Erakundeari eustea lortu eban egoera larri horretan, eta Frantziako gobernuak 'Chevalier de la Légion d'Honneur' izendatu eban. Gero Bilbora etorri eta lehenago aitaturako etxe mordoaren eraikuntza bultzatu eban. Sari bat emoteko asmoa egozanean garaiko agintariek, baina artean hil zen Loiolan.

- IDIGORAS Jon
- ONAINDIA BASETA, Santiago, 1909-1996. Amoroton jaiotzen zen. 1936ko gerraurrean Larrean egon zen. 'Karmengo Argia' eta 'Jangoiko-zale' aldizkarietan esku hartu eban. Gero gerran gudarien kapeilau izan zen. Gero kartzela eta Euskalerritik erbesteratua egotea ezarri eutsoen gerraren irabazleak. 1951an Larreara bialdu eben nagusiek eta hiru urte kenduta, hementxe bete ebazan bere bizitzako urterik oparoenak. Baten batek 'gigante solitario de la resistencia cultural vasca' deitu eban. Hainbatek lagundu eutseen, baina berak be jakin eban laguntzak topetan euskararen literatura lanak argitaratu eta zabaltzeko. Mila euskal olerki eder, 'Oleri' poesia aldizkaria, eta ahaztu xamarra dagon Lauaxetaren poema guztien argitalpena, badira gogoratzeko lanak.
- UGALDE, Antonio de San José 1716-794
- ZAMALLOA, Trinitario.

Fenomeno fonetikoak: soinuak bokale eta kontsonanteak. Azentoa.

Sistema fonetikoaren azaleko azterketa: Bokalak

Triangelu bokalikoa Irekiak eta itxiak. Asimilaketa, disimilaketa, metatesia. Bokalen jarraipena. Diptongoak: oinarritzkoak eta eratorriak. Bokale geminatuak

Kontsonanteak: herskariak gorra eta ozenak. Sudurkariak, Albokariak, Dardarkariak. Txistukariak frikari eta afrikariak, Frikari autonomoak J eta f. Kontsonante aldaketak: metatesiak, asimilaketak. Bustidurak.

Azentoa. Silaba bidunak, hirudunak, polisilabadunak.

Izen morfologia

Aditz morfologia

Morfosintaxia

Guk hemen herriaren bizitzaren hiztegia edo hiztegi etnografikoa. Hau egistasmoaren zati bat da. Zornotzako berbeteak askoz zabalagoa da. Eta honek beste zati bi eskatzen dauz: hiztegi orokorra eta morfologia osoaren azterketa eta morfosintaxiaren azterketa.

Sermoiak euskararen historiaren lekuko lurralde honetan

Etnotestuak herritarren lan eta bizibideen adierazgarriak
Ipuinak

Argazkiak. Tresnak: Errementaria, zesterua, Errota: Argazkariagaz atarako dodaz.
Eraikintzak: Amorebieta Etxano liburuxkan

Eusko Alderdi Jeltzalea iz. ber. Partido Nacionalista Vasco. 'Alderdi asko egon sien Sorrontzako plasan' Partidue be ixé'leike'.

euskalzale iz. amante de lo vasco. 'Euskelsale asko. Euskelsaliek dosak. Gixon ori euskelsalie dok. (E. A.)

euskotar iz. adj. vasquista. 'Euskotar asko gosak. Ori euskotarra dok' (E. A)

ezezagun iz. adj. Desconocido. 'Eseseune. Eseseun asko. Esesen batas on nas berbetan or etxien ostien'. (E. A.)

foral iz. adj. 1 Foral 2 Cuerpo de policía de la Diputación. 'Foralak entzutie, esetu ez. Foral asko' (E. A.)

Falanje iz. Falange, formación política franquista. 'Fálanjie. Fálange asko. Falanjie partidu bat ixengo san'. (E. A.)

Fai iz. ber. Siglas de Frente anarquista ibérico. 'Ortxe S. Migelen ipiñi otzien mutill bati ixena Fai'. (E. A.)

faiko iz. adj. Miembro de la FAI. 'Estot pentzetan faiko asko ongo sanik'. (E. A.)

fletxa iz. Miembros juveniles de Falange que llevaban unas flechas en la camisa azul. 'Flétxa asko. Falanjistek ibilltten sien fletxak paparrien ipiñitte'. (E. A)

frantzesa iz. 1 originario de Francia. 2. Hierba para el ganado. 'Frantzés asko. Euskalerridxen be frántzesak bixi'osak'. (E.A.)

gorri iz. adj. 1. color rojo 2 republicanos. 'Gorri asko. Gorridxek euren partidue eukitte'eren'. (E. A)

guardia zibil iz. ber. guardia civil. 'Goardasobill bi. Goardasobillek etorten sien ona da akulu-en punten untzie euki eskero, asarre eitte'eren. Arridxen jo ta mostu'. (E. a.)

gudari iz. Soldado vasco. 'Gudari asko. Gure eusoko gudáridxe etorri da'. (E. A.)

ofizio iz. oficio. 'Ofisidxo asko dxekkek orrek. Orrek gixon orrek ofisidxoa dxekkek'. (E. A.)

paper papel iz. papel, documento escrito. 'Ayuntamentutik etorri dxatasak papelak araittik edo orraittik. Papel asko etorri dxatasak. Ori dokumentu / papel ori etxoat aitzen'.

panaderu iz. panadero. 'Panaderu asko. Goixeko bosterdidxetan etorten da ona panaduredue. Orrek harria pikau ad. lok. dau, deutso picar la piedra del molino haciendo unos canalillos. 'Txarroak errota'arridxek pikeu eitte'sittuen. Gasteute ongo sien díbujuek da atzera barristau' (E. A.) Garidxentzako arri frantzesa gogorraue da. Arridxe gorau edo berau, urune fiñau edo latzau (A. I.) Artue sartzen dan lekuen kanalak anditxo-au bier deu'. (M. I.)

aserin iz. rueda metálica sobre la que cae el agua a presión y hace girar el eje que mueve la piedad superior del molino. 'Aseriñe beko errubedieri esato'tzu. Lau errotak lau áserin dekos'. (M. I.)

bae iz. cedazo, tamiz. 'Lau bai. Baye da uruneri saidxe kentzeko. Bayek sarie deko sarratu-au-e'. (M. I.)

balantza iz. balanza. ' Bálantza bat. Balantzie: platillu bigas oten dienak. Alderri batien pixuek da bestien jenerue'.

baskula iz. báscula. 'Bákula lusie. Báskulie ibilltten dogu sakuek pixetako. Da lagunek be pixetan dous'. (M. I.)

benda iz. pago del 10% al molinero por el trabajo de moler. (Lab. no trae)'Errota orretan benda altue dekie. Bendie: amarreti' bat edo kentze'geñun'. (M. I.)

búfardie

erroska iz. rosca. 'Errotarridxeri gradue emoteko érroskie. Arridxe bekue fijo, da goikue sentimetro bi gora, da sentimetro bi bera ixete'san' (M. I.)

errota iz. molino. 'Errotieri begittu 'otzesu? Errotieri buelta bat eiñ ddotzesu? Errota osoari deitzen jako holan. Baina arriak dagozan geleari: errota-salea. 'Errota-salara juen sara'? Oromiñon lau errota daus: Goiko errota, Erdiko errota, Beko errota, da Osin baltza'. (M. I.)

errotari iz. molinero -ra. 'Atzo alkartu sien bost errotári'. (M. I.)

errotarri iz. piedra de molino. 'Sei errótarri dekus etxien'. (M.I.)

estolda iz. alcantarilla. 'Estolda estue dau. Erreka onetan lau éstolda daus. Estoldie. Gure éstoldie estutxue da'. (M.I.) Txiflotik errepara doan kanala da estoldea.

galbarie 'Galbarie da artue edo garidxe edo dana dalakue toberara botateko'.

konporta iz. compuerta. 'Kómportie da errekatik andaparara sartzen dan pasue. Lau errotan-tzako lau kónporte dekus'. (M.I.)

lafux iz. escopeta antigua. Lafuxe lenauko eskopetie. Aittitek kargeu da tirue bota mirueri. Miruek ollandie ekarri aben pikuen illdde beste etxe batetik. Tirue bota da mirue ill. Jausi san ollandie, da aseridxe arrapeu'. (M. I.)

peskante iz. pescante. 'Lau errotatan lau péskante daus. Peskantie: kampa biga batek urtetan deu. Andik eskeitte kate bat dau, da kate orri lotute ol sati bet ur ganien. Andaparako ure goidxen dauenien olak idxon eitten deu da barruen errota ganien dauen katie berantza dator. Andaparan ur gitxi dauenien, barruko katiak idxon eitten deu da kanpoko bejatu eitten da. Barruti' katiatxu batas uren nibela dxakitteko da, andaparako ure neurtzeko.

pikamailu iz. martillo para abrir canalillos a la piedra de molino. 'Pikémaillue ta bufardie

porponta iz. compuerta metálica para abrir y cerrar el paso de agua a la antepara. 'Pórpona andidxe / txikidxe. Porpontie sarratu edo sabaldu erreka ueri pasue emoteko. Goiko pórpontie sarratu eixu'. (M. I.) Errekatik edo presatik andaparara doan uraren atea. Burnizkoa izaten da.

tobera iz. tolva, caja en que se echa el grano a moler y que por un mecanismo, hacer caer poco a poco los granos entre la muela y la solera. 'Toberie / Tolbie goidxen ipintten dana granuekas (Agus. Ibarra). Toberie goidxe sabala enbudi antzekue da olan beko ardatzak golpiek emoten dotzez eta granuek urtetetan deu'.

txifloi iz. tubo que conduce el agua para que golpee la rueda metálica inferior del molino que hace girar las piedras. 'Lau txifloa dekus. Txifloiye: ueri pasue emoteko ori da txifloye'. (M. I.)

zorro iz. saco, costal. 'Sórrue. Sórrue dakat. Artósorruas nator. Geur sorro asko dekus'. (M. I.)

templador iz. rueda giratoria para mantener una distancia mayor o menor entre las ruedas del molino. 'Altzeixu templadóra. Arridxe arridxas junteu eitten san errotie gelditzeko'. (M. L.) Ikus erroska.

urun iz. harina. 'Urune Artóurune Garíurune. 'Artóurun asko eidxo du. Onek errotak urun asko eidxo dabie. Garíurune illuntxue da. Garíurun asko eidxo du. Artóurune oridxe da (Amamak M. Linazak, beilegiedxe berbia be ezagutzen du) Naparroako artue

askos da obie'. Garágar urune: geidxen garagar urune eñ ddou. Garagarurun asko eidxo du'. (M.I.)

urunaska iz. recipiente al que cae la harina molida. 'Urunaskie. Txorroiti' jeuste'san urune da palias sakue bete'. (A. I.) Labairu no)

urundu ad. dau, deutso moler, hacer harina.

txorro iz. canalillo de cinc por el que caer la harina molida. 'Txorrue. Urune jeusten dan ague, txórrue'. (M. I.)

ezten iz. aguijón, punzón. 'Esténa sulue eitteko abarkari. Lau estén dekus'. (M. I.)

aluminio iz. aluminio. 'Aluminioa. Aluminiosko piesak soldieu eitten die. Kalamiñie gatxa soldietako; aluminioan tipoa deko baya pisu geidxau deko'. (J. S.)

altzairu iz. acero. 'Galtzairue, Inosidable suridxe. Burdiñieri: galbaniseue berotute pintturien moduen'. (J. S.) Altzaidue, galtzaidure (F. G.)

amantal iz. delantal. 'Améntala, améntal; Améntala, narruskoa san'. (J. S.)

ardatza iz. macho de rosear (F. G.)

auspo iz. fuelle. 'Euspóa' (J. S.)

azpijan iz. Aspijana macho de rosear (F. G.)

barautz iz. broca (F. G.)

beruna iz. plomo. 'Plómoa' (J. S.)

burdina iz. hierro. 'Burdiñie'. (J. S.)

errementari iz. herrero. 'Errementáridxe' (J. S.)

eskoria iz. escoria, restos de la fundición del mineral de hierro. 'Burdiñiek urteten deu saldien moduen. Eskoridxe da ak ixten deuen txarikeridxe'. (J. S.)

estaino iz. estaño. 'Estaiñuas soldieu eitte'eren, gero errematxeu'. (J. S.)

forja iz. forja. 'Forjie beste tipo bat da. Maillu neusidxegas eitten dere bierra'. (J. S.)

galdaragile iz. fabricante de calderos. 'Galdaragille. Kobresko galdarak, floreruek da paragueruek eitte'sien Bernan'. (J. S.)

iungure iz. yunque. 'Yungurie. Sulo bi dekos alboetan. Bat biribille bestie kuadreue'. (J. S.)

kobre iz. cobre. 'Kobrie'. (J. S.)

latoi iz. latón. Latoya, gorridxe. (J. S.)

mailuki iz. fresa. Instrumento para hacer piezas de corte y perforación. Maillukidxe (F. G.)

sukatilu iz. crisol. 'Sukatillue usete'san plomoa fundiduteko asta luse batatz. Saldie eitte'sanien moldieu'. (J. S.)

urre iz. oro. 'Urrie. (J. S.)

urtu ad., da, dau, fundirse, derretirse. Urtu (J. S.)

urtze iz. fundición, acción de fundir. 'Urtzia'. Bernako Margarita M^a Nieves.

zidar iz. plata. 'Sidérra' (J. S.)

zink iz. cinc. 'Telletuen ipintteko kanalak. Orrek soldietako siñegas' (J. S.)

zorrostarr iz. piedra de afilar. Tec. Muela o platillo muela que se usa en fábricas de construcción de brocas y otros objetos cortantes o para perforar. (F. G.)

Astótzarak

Bandejak

Besótzarak

Lur-sestoak

Míñetarako sestoak

Otzarak

Sestoak

Laietza josgarridxe karela zul viga. Labairu no trae.

Ludoe ludoí ¿?

Gernue: orina

ABEREI AGINTZEKO

aida interj. adelante (para el ganado vacuno). 'Aida akuluas sirri bet eindde nobera be eurrera'.

altza Interj. arriba (orden de levantarse al ganado vacuno para ordeñar o para limpiar). 'Altza! Da ostikada bat emon edo ankias jo'. (E. A)

altza burue! Interj. arriba la cabeza (orden al ganado vacuno uncido). 'Altza burue gorri. Altza burue, ori be bai'.

arrantza iz. Rebuzno. 'Antxine ixen edo lenauko astuen arrantzie' esate'san. Denpora asko paseu danien edo esate'san'.

arrantza egin ad. lok. Rebuznar. 'arrantza eñ, arrantza eitten deu'. (E. A-k 'rebuzna' euskeraz holan esaten dau). Arrantzaka adb. Rebuznando. 'Gure astue arrantzaka dabill'.

arre interj. Adelante a los burros, caballos y mulos. 'Astoari eurrera jueteko arre, da gelditzeko iso (E. A).

ator Interj.. llamada al ganado para venga hacia la cuadra. 'Eutzo, eutzó deittu beidxeri landan dabixenien'. (E. A.)

ausi iz. aullido del perro. 'Txakurrek eusi eitten deu seoser ikusten deuenien, eseseun bat edo'. Eusi. Eusike dabix txakurrek seoser ikusitte edo'. (E. A.)

bee onom. valido de oveja. 'Beée olan eitten dere ardidxek eta euntze'pe bai'. (E. A)

irrintzi iz. relincho. 'Saldi irrintzidxe entzun dot. Bior irrintzidxe entzun dot'. (E, A.)

irrintzika adb. Relinchando. 'Kaballuek irrintzike datos'. 2. gruñido del cerdo. Txarrixke irrintzike dau gosias edo'.(E. A.)

ixo ono. Alto al burro o a los equinos.

jeurt Interj. grito para que el ganado de la vuelta. 'Atrás esaten dxakon, atzera be bai. Jeurt edo eurt buelta artzako soluen allegetan danien eskiñera. Geriakue edo orkue san da ak jeurt esate'eu-en'. (E. A.)

karra-karra croar de las ranas. Ugelasidxuek gabetan or mayetzien da; ugelasidxo kantie alegrie isete'san' (E. A.)

karaxaka adb. Cacareando. 'Gire poñie laraoxala dai. Arrutzie eitten deuenien karaixaka'. Karaxa cacareo ¿?

kix-kix Interj.. llamada al cerdo. 'Ki-ki pentzot esate'geuntzela. Txikián lepuen ikutute: olakuek be esate'geutzesan'. (E. A.)

kluk-kluk croar del sapo. 'Durungori sapi erridxe esato'tzie. Estaitt pa nik sapo asko edo selan oten san. Ugelasidxoak oten die gabetan kantetan'. (E. A.)

kukurruku canto del gallo.

kurra-kurra llamada para atraer a las gallinas. 'Kurra-kurra da granue edo botata; artue edo garidxe edo botaten dxakien'. (E. A.)

mix-mix-mix onom. llamada al gato. Mix-mix-mix edo orixe'. (E. A.)

orroa iz. mugido. 'Orroa andidxe eitteittues jatekorik estekielako. & Orroaka adb. Mugiendo. 'Gure beidxe orroaka dau kortan jatekorik estekelako'. (E, A.) Orroa egin ad. lok. mugir. 'Gure beidxe landa daus da orroa eifñ dabe'. (E. A.)

tomaki voz para ahuyentar al perro. 'Tómaki txakurre'. (E. A.)

txio-txio onom. Gorjeo. 'Txoridxe txio-txio eitten deu'. Txioaka egon / txio egin ad. lok. gorjear.

ulu iz. aullido lastimero. & Uluka ad. aullando lastimeramente. 'Len euki geñusen ambulantzidxe sirenie jote'erenien, txakurrek uluke palnteta'sien. 'Da ondoko baserriko txakurre uluke ibilli san'. (E. A.)

urruma iz. mugido. 'Urrumie deko beidxe edo arnas-estue edo. Urrumie olan miñe dekienien edo'. & urrumeka adb. Mugiendo. 'Urrumeka dau beidxe'. (E. A.)

urrumada iz. mugido. 'Beidxen urrumadie entzun dot' (E. A.)

uxa voz para espantar las gallinas. 'Uxa da olan ba oilloak ieltzeko0. (E. A.)

zapi voz para espantar al gato. 'Sapi katue' (E. A.)

BESTE BERBA BATZUK

kokolo adj. necio. **kokolotu** ad. entontecer(se). 'Kokolotu eimbiot neu'pe'.

Gixon batek olan konte'teuen. Gixon bat bieldu eren mesede baten eske ondoko errire. Etorri sanien esa'otien ser eifñ dderen edo. Ba auxe esa'ustie: guk emen sertzeako, da guk emen sertzean dogunien, eurek an sertuko derela. Orrek auxe esan gura dxok: Geusie aginndu da esebe esterela eingo da ori'. Hau kontetan ebana Galdakao aldekoa zen eta Euba aldean bizi zen.

berdatu ad. enfadarse. 'Eusoko gixona berdatu ein sen esa'notzenien an soluen artue eskasa dauela edo'. (E. A.)

'Samudio, Sondika ta Loiu, arto asko ereifñ da gitxi koiu' (E. A.)

1. ZERUA ETA ATMOSFERAKO FENOMENOAK

afruntu iz. tempestad, tormenta. 'Afruntue, áfruntu; áfruntu andidxegas etxien ondo.' Sino. Ekaitz, ekatx, galerna, denporale, enbata

agortu ad. da, dau agotar(se) una fuente. 'Sikete andidxekas itturridxek agotrtu eitten die'. Sin. Ahitu, amaitu.

aterpe iz. abrigo, protección. 'Euri asko danien aterpera dxoaten gara'. Sin. Babesleku, estalpen, abaro, teilape.

atertu ad. da, dau escampar. 'Atertzen danien, euskidxek urtetan deu' Sin.: ateri izan

belaino iz. niebla. 'Belañoa dauenien eukidxek nekes urtetan deu'. Sin.: laino azpilaino, behelaino, kain, erreka-laino.

bero iz. adj., calor y caliente. 'Beroa. Idenm bero andidxek eitten deus'. Sin.: berotasun. 2. iz. calor. 'Beroa, bero; Geur bero dau' : hoy hace calor.

busti ad. mojar(se). 'Euridxe danien busti eitten da'. Sin.: garazta(t)u, ezkotu, basitu, zirpriztindu.

edur iz. nieve. 'Edurre. Edur asko dauenien oñetako onak bi'die' Sin: elur. edurre bota 'otz dau edurre da-ta'.

edurre dxeusi ad. lok. caer la nieve. 'Edurre dxeusten dau'. Edurra egin ad. lok. 'Edurre eitten deu geur'. Sin. edurra erakutsi, edurra izan, edurrak jardun, edurrari eragon.

Fraguan arriketas sue eitte'gendun. Fraguan berotu da gero forjeu edo kaldieu. Tietu, mailluegas sabaldu edo erredondotu be igual. Geidxau bier bada berotu barriro. Igual lau-bos bider berotu bier. Bittarttien mailluas edo porrias formie emon, ser gure dan. Burdiñie berotu ta forjeu bi-dosune, da gero otzittu edo templeu. Otzitzeko uretan sartu edo oridxoan be bai, segun se duresa bie-deuen ta se materidxel dan. Fragua, yungurie da askie urena, dana eskure. Eitten gendusen ariak, goldak, burdiñ asuntoa dana. Txarrantxak, itaillek da burdiñarrak. Burdiñarra narra da, baya kuadreuen da ortzakas aspittik. 8-10 sentimetroko ortzak. Burdidxen llantak etorten dxakusen (eskatute) Durungotik, sein Sorrontzatik, segun pedidue nondik dauen. Tenasak: burdiñia ebatzeko tenasak, edo bueltia emoteko edo euntzitzeko, tenasak. Euspoak gora ta bera eitten deuenien aixia botaten deu alde bidxetatik.

Templeue eitteko, selan otzittu, kolorie botaten deu da aixe kolorie sainddu. 'De color cereza a color verde'. 'Color cereza' gori dauenien, da kolore berdie' beres urtetan deu. 'Color cerezari' ure emon gogor eitteko. 'Aceroa' ixen eskero errementeu igual. Baya burdiñia ixen eskero aguantetan deu, gogortasune artzen. Oridxoen templeie bigunaue da urena baiño. Beste materidxel batzuk aixetan artzen dere templeie. Brokak d'orrek aixetan templeie. Materidxelak: burdiñie normala, apur bat asero eitten deuen, normalien templeie uras, da aseroa. Geure taladroentzat, bierra geuk; aitte defuntuek berak eitte'eusen brokak edo barautzek. Askorak eitt'gendusen. Fraguan paseu da gero agoa atara desterias. Ori ixete'san askorak sorrosteko, atxurrek da ortakoixe. Atxurrek es geñusen eitten baya satidxe soldieu bai. Kaldietie ori diferente da: pastias kaldietan da; pasta espesiala da txokolatien tabletien tipokoa. Da tiretxu bet ebai, sartu fraguan burdiñie sati bittartien d'ixerrak urtetan derenien atara kampa da mailluas jo. Gero barriro berotu da best'alderridxe. Nik soldieu gure neuen, baya aittek es eusten ixten.

Tejamanan errementaridxe d'ondoan potroa be euki gendun ganauek erratuteko. Guk don Pablo Mengersagas geunken. Baya titulorik es euen euki. Txapia genken: Clínica herraje D. Pablo Muguerza. Gero Arkadio etorri sen da au titulodune

san. Pablo Muga il d'urrungo egunien guarda-sobillek etorri tte potroa kendu eyuskuen.

Surterako: (k)oka arriketzan modukoa da baya bastue. 'Lentamente' berotzeko bai. Baya surterako arriketza da onena. Eutzek esteko bixittasunik. Arriketza Bilbotik ekarten gendun. Rekadistie ibilltte'san, d'arek ekarte'euskun.

(Burdi errubedak). Burdiñie berotzen danien asi eitten da; errubedako ola sartzeko katue euki geñun d'aras obligeu llantie. Erre esteitten ola, ure bota. Llantie 3 sentimetro ondo emongo deus. Oztittuten da d'olak presiño andidxe deko. Ariaortzak sartzeko brokias sulotu, berotu ortzak d'aregas erre. Sulotzeko eskudria talusien (talud) ipiñi da plantillie sulotzeko.

Ehiza

Diputasiñoak eukitten deu junte bat. Grupoak daus, da grupoak eskatzen deuries mantxak. D'eurek eitten dere elejidu edo diputasiñoak emon egunek. Grupoko lau edo bost joaten die aste bittartien d'oten die saindduten basurdie. Gero domeka goixetan joaten die lau edo bost, sein sonatan dausen, topeu eitten deries non dausen basurdek. Topetan deres lorratzak da txakurrek usiñe. Txara batera sartzan danien, txakurrek da lagunek txarari bueltia emote dotzie. Beste batzuk itxauten oten dies edo Meumen edo Adxudxen edo Urrutxun. Mendixen ibilli dienak etorten die bestien bille da badoas danak mantxia dauen lekure d'artzen dotzie bueltia. Bueltia artueikoan, bat sartzan da txakurras, d'arek eitten deu atara. Da batak batera, da bestiak bestera urtetan deu. Ori egunes, baya geubetan danak batera ibillten die. Orduen kasadoriak sur egon bier tirtzeko. Aittek, d'aittittek be, ukusi seuriela basurdia, esate' eren. Gero galdu sien. Oiñ ogei urtetik onantza asi die basurdek emen. Ointzu Astitxen arrape'serien eun da ogei killokoa edo olakoa. Gorosiken edo arrape'serien beste bat.

Hargina

Masia. Mañaritti arridxe ta aria ekarten san. Sortzi sesto semento da lau sesto aria. Aria gitxi bota eskero poroak urtete'eren. Paluas eitte'san. Lemoako aria mantekosoa san da Mañariko arridxe. Gero Atxarten aria baltza egoan. Gero Urkusun be agertu san. Lemoan kantara neusikoaren ondoan atara seren kantara txikidxen aria fin-fin-fiñe. Lar fiñe sanien arrakalatu eitte'san. Lemoan karabidxe on sien surittutteko, da masia eitteko be bai. Gresetia: botat'otzien masia orman 2-3 sentimetro da gero karia, sementoa, da itxosoko aria. Itxosoko aria: morteroa ein, da montoyak atxurtus, uregas bigundu, da bota obran. Lurregas e nastetan san. Ormak eitteko aargiñek oten sien. Nire demporan Esturo da Otxan. Argiñek oten sien arridxe lantzeko. Etxe bat konpontzen ebixen da sati bet Jesé ein sen. Arridexas da masias ormak, baya sementoa gitxitxu, karue san-da. Aldamiñoak sokakas amarreute oten sien. Olak sokakas lotote, alambreakas edo al dan moduen. Beste batzutan untziakas. Postiak: goitti'bera estriboas lotu barillek ta morteroan sartu. Postia baño estutxoauak, bo'sentimetro edo. Oiñ ferralistak dau, baya guk geuk eitte'gendu dana. Plantxa bat eitte'gendun. Potroak oten sien da katxabia atat'otzien barilliari, da gero goitti' bera best barille bat katxaban engantxeu. Gero masia bota ganera da or gelditze'san. Etxe barruen tabikek eitte'geñusen. Plomadias goitti'bera maristek ataaten geñusen. Ideltzoas ataaten sienak fintxoauak sien. Mantxa bat goidxen (espesor de raseo esate'geñun). Reglia pegeute gelditze'san, d'aspidxen beste mantxa bat. Siketzen sanien reglia kendu da segidu. Da ganetik eitte'san lusidu. Ideltzoa' klase bi: bat toskoa silloak tapetazo. Bestia fiñe ormia lusietako. Bergaratik d'Orduñatik etorte'san. Orduñekoa rapidoa ixete'san. Baserridxetan kortak ixete'sien bierrik andidxena. Kortan suritzeko beidxen txixe botaten geuntzen. Eskatzen bat edo besuen bat, baya gitxi.

Etxiak surittu. Etorri ai etxia suritzen karias. Eskolak be surittu neusen. Kare asko txupeta'euen. 'Eidxok txixe' esa'osten lagun betek. Da bardin txupet'euen. Akorde dxatan lejia botatia. Da orduen es euen bape txupetan d'arin eitte'neuen. Gero templiak urte seuen, da pintturek.

Serak eitte'gendusen, panteoyak kamposantuen, da nitxoak. Berrogei ladrillu imintteko egun gustidxe. Idrolikia karue. Idrolikia 'cemento rápido'. D'akorde dxakuns sosa kaustikia botatia masiari. Da ladrilluek be oten sien busti, da masia be bakixu. Da ladrilluek siku oten sienien karia txupeu. Talotxa bat edo esponjia paseu, da fin-fiñ itxi eskero es euen txupetan karia. Apur bet latz itxi eskero txupeu eitte'seuen.

Kamposantuko nitxoak: 5-6 palakada aria ta sementoari, sosa kasutiko pakete bat bota. Aria gorridxe Etxanakoa. Arekaratxa Lemoakoa. Etxanoko aria ona baya konsistentzi gitxikoa, bier eitteko ona. Arekaratxa bota da gelditze'san gogortasun geidxauas, da beste kolore batas. Orreri bota sosa kaustikoa da gero nitxoko tabitek gogor gelditzen sien, idrolikia les. Sosa kaustikoa: paketetxuek 20 sentimetro edo luseran, da 4 altu. Lusidu be es euen eitten. Bastu ixete'san d'ori kentzeko trapu bet edo ol satitxue bet, talotxia esaten dxakona paseu, da kare apur bet suritzeko. Karia bota eskero masiari, beste grasi bet eukitte' seuen.

Ure ekarteko sankia be ein gendun.

Baserridxetan sementosko tuboak oten sien. Gero urte'seuen plastikuek. Bridak tubo bi sien. Tuboak 'macho y hembra' sien, burdiñesko tuboak. Bata bestiari sartu da estañoa urtute bota, da fijo gelditze'san. Estañoak esteidxen urten aria apur bet edo bustiñe bueltan, presa moduen d'itxi gogortzen. Gori-gori oten san estañoa. Bustiñe ipiñi bueltan da plomoa edo estañue urtute bittartietan bota, da gustis estutute gelditzen sien.

Gresesko tuboak be oten sien. Onek arrakalatu eitte'sien, es apurtu. Saneamentuetan da telletuko uren bajakeria, da lenauko baserridxetako komunetan be oten san gres ori.

Paletia sei ogerleko edo 12 kosteta'san. Paletia gasteute euki eskero 'ori ofisiala 'ok' esate'gendun, 'orrek badxakik bierrien'. Paletias jo ladrillue da kampanillien moduen saratia ataaten seun: ori paleta fiñe. Llanak oten sien, gasteu barik bi'dan moduen. Llana sarrak bai gasteute. Barridxe eroan eskero, piyari emoten dxakon gastetako. Llanak errepelu eitt'seuen, bastu itxi. Barridxek erosten gendusenien karartien sartzen gendun guritzeko, geubetan. Da gero ibilli. Nibelerako olak ipiñi, iru tako. Begittu erdittik tako batera da gero bestera. Begi ona euki eskero obeto. Irurek parien paretan sienien ondo. Atarate'san diferentzidxe, baya txikidxe sentimetroen barruen. Plomadia ataateko untze at sartu, kordela amarreu da gero beste punteti'goitti begittu. Espabe arri bet amarreute kordelari edo metroas be bai. Txistue punt betera botata be eitte'san. Marka bat eiñ lurrien da txistue kontus bota, da an jeusten basan, artes egoan. Eletrisiste, ojalateru d'aros es geñun eitten, beste gustidxe bai. Pinttore da geuse gustidxek. Nibelerako gomia be bagenken. Gomia ixete'san nibela pastako Goma lusia etorte'san txorkoas. Uregas bete da botaten dxakon oridxoa edo arda apur bet ukusteko. Alde batetik puntue ipintten dxakon fijo. Ure allegetan sanien, 'altzeu gorau, berau', da

gero botaten dxakon begidxe. Alde batekoa fijo eken, puntue fijo egoan, da bestiak olget'euen goratxoau, beratxoau. Beste alderdire allegeta'sanien, an puntuen untzia sartu, edo lapixegas markeu edo txingerras, d'araxe nibela artzeko. Obretan pare bat sentimetro edo beti ixete'san aldia. Egurrek be oten sien bidxortute da siri-kuñek sartu, edo 'kaltzue sartu dxok, edo 'sospal bat' nibela artzeko.

IPUINAK

Gixon sar bat san esta? Da ba konfesau barik egoan urte askotan. Da etxekoak billur ixeten sien, pues creían que se iba a condenar. Ya sabes sin confesar ni comulgar, y eso antes. Ahora menos miedo hay pero entonces mucho miedo. Esan eutzien; etxekoak larri. Abadie eruen otzien da esetz. Jainkorik be estauela, ta esin konbertidu. Da beste abade bat eruen da esetz, estauela (jainkorik).

Abade gaste batek esan aben: ori neuk konbertiduko dot. Joan san abade gastia da gelako (kuartuko) atien planteu sen da esan eutzen: Jainkorik estago, es. Estau, geixoa(k) pe, agure sar orrek. Ama birjiñari(k) pe estau. Es, estau. Ori datorrela, ori abadici! geixoak.

Da joan san, dana estauela esatotzen abadiak, estauela, estauela, alako baten esan eutzen ba bera estauela. Baña estaueles, egongo balitz, ia bizetara prepareute ondo eleittiken ixengo, esta? Por siakaso, egongo balitz, esan eutzen. Gixon ori asi sen pentzetan da abadiak esan eutzen: ba bizer be etorriko nas da pentzaixu. Bizamonien joan zakon, estauela baya egongo balitz, bizetara ondo eleittiken ixengo ba konfeseute. Da gixon ori konbertidu sen. Baya berak esan aben es dakizela lengo dotriñarik eta Jainkoaren legia, mandamenturik pe estakizela-ta.

Abadiak esan eutzon: Esteko ardure, neuk prepareuko saittut. Neu etorriko nas. Da sakristeueri esan eitzon: konbertiduko dot. Ibili san Jainko mandamentuek erakusten da esan eutzen: bizer ni konfesetan joan bier nas, da ni (baño) orduerdi aintxuau kuartuko atien ostien ixara suri bategas planteu adi. Eta asi san konfesiñue. Da geixoari esan eutzen: Estau jainkoa, egongo balitz (bakotxa)

konfesetan dauen momentuen, geuse suri bet agertuko zakola, paloman bat, argittasun bat edo seoser etorriko zakola.

Orregaittik ipiñi aben sakristaue ixara surizegas ate ostien. Asi sen konfesetan lelengo mandamentuetan, da eseuken pekatuak, bapez. Bigarrenien bes, irugarrenien bes, laugarrenien bes, bosgarrenien bes. Seigarrenien osterak danak (todos los pecados ahí). Abade gestie be kuriosue san, da jakin gura, egin gure, eta preguntan eiotzen nogas esateko. Baña ixillik egoan da tartamutue san: sa-sa-kris-tau-tau-en andrias. Eta sakristauek atien ostetik urten da esa eban: "Me he vestido de ángel para saber lo del demonio".

Beste bat be joan san konfesetan; urte askotan konfeseu barik egon san. Ni joan sien. Bat asi san konfesetan da are pe antxe euki abesan pekatu gustizek. Eta abadiak nogas eta nogas preguntetan eutzen. Pekatarizek esa eutzen beriek konfeseuko deusela eta bestie, beraakordekko dala. Nik neurie bai esango dot, baña bestie bera arreglauko da.

Abadiak esan eutzen: errikoak die? Baia pekatariuzek esate eutzen estekola setan zakin. D' abadiak esan autzen: Errikoak badie, mengana, sutana, ta fulana die. Pekatariuzek esa eutzen estiela eta emoteko "solusiñoa": Emo eutzen solusiñoa da zoan sab abadie. Da bigarrena au egon san itxauten konfesetako. Da beste pekatariuzek esa eutzen: Joan ariñ, ariñ, ariñ, iru txori abizua gezuago topa doas nik eta.

(hau ez da sartzeko)

SINISKERAK - BEGISKOAK

Nire demporan begiskoa sarren sarren esakeria da, nire demporan begisko gitxi ixen da. Nik esangotzuet neux entzune. Bat begiskoa. Bedia, Usansolo edo or, egon san bat geixorik, txarto. Egon san lenau esaten sien astuek edo sorgiñek edo esate eutzien:suk geixoa deukosuna laster topeukosu. Ollar bateri bixirik kendu bizotza, a bizotza lapikoan egosten ipini; begiskoa ein dotzune txarto ein dotzune etxera seuri etorriko zatzu. Joan san da etorri zakon olantxe. Gero ba andik denporakarrenien esan eitzen arek parka eskatu begiskoa tzenari embieutzen. Esan

eutzen: nik parkatuko tzut baia urrengoak es totzu parkatuko. Gero an ibilli sen txarto; arek parkatuarren, berak begiskoa; suk ari parkatuarren esan obetzen. Nik eitten botzut suti begiskoa suk parkatuarren, ni paretan banas geixorik, ni enas osatzen. Esakerie da, baia oin begiskoa estau. Egoten sien kutunek umiari es eitteko begiskoa, baña oiñ estot uste. Maldesiñoa, orasiñoa d' olakoak; maldesiñoa pegeu leike.

SAN JUAN

San Juaneko geusek danak daus berinketute. Esate baterako San Joanetan ereiñiko babiari kokorik etxako eitten. Neu nabil aproba eitten. Urte bitten erein dot da etxako ein kokorik da segidu ein bier ereitten. San Juan guneko bedarrak kuretako bedarrak. Nik estaitt ondo se nire gaste demporan urten abien medikamentuek da galdu ein sien. Baya geur be erremendidxoak dxakin eskero sertarako dien. Nik bedar asko dakitt, baiño setarako dxakin egin bier da.

Bedar batzuk ba daus lora txikitxue deukienak. Danak estie ereitten San Juan egunien baya San Juan egunekoak deko meritturik geidxen. Bereinketute daus. Gure gaste demporan dxoaten giñen ortosik prakak erremangeute San Juan goixien. San Juan eguneko garoa bedeinketute dao. Nire fedia or egunekoa da.

MARI AMBOTOKO SEÑORIA

Lenau neure demporan, baten edo bitten urridxen, egunien pasetan san, (Barikuetan lengo andrak, sorgiñ gustizek egitten abien batzarra). Suten pasatan san Ambotoko señoia. Neu' pe ikusitte dekot edo amesetan edo benetan ikusitte dekot. Ambototik Oixera, Oixetik Gorbeiera eta Gorbeizuetik Ambotora aidien sue darizola. Maia Ambotoko señoie morgiñe, parte txarrekoa dala esate'san. Baia parte txarrekoak antxiñe amaittu sien. Esaten abien eun urtetik eun urtera pasetan sala baia nire demporan pasetako eun urte estie.

Sorgiñek eta diabruiek akabeu sien. Da Amoboton kuebia dau. Joanda nau baya nik an eneuen ikusi sorgiñ ori. Estakitt barrurau edo non egoten san.

LAMIÑAK

Andra bateri orrasidxe ostu eutzien. Da lamiñek esa' eutzen "Ekarri nire orrasidxe, ezpabe neuk kenduko'tzut begidxe". Orrek danok Eibar agertu sanien akabeu sien: Sorgiñek, diabruak eta danak.

Parte txarrekoak esin dabe ikusi kurutzerik da personiak kurtze bat badeko seuse txarrik esin eiñ.

Bedarra da gure lagune. Tripetako miñentzat, erreumientzat, belarrikoentzat, mille geusetarako daus bedarrak. Eridientzat asukeria, da orren saria odola garbitzeko, baya oiñ gero eta gitxiau.

Garrikoa. Lenau garrikoak usetan sien. Neskia lagundu ta gero kamiñoa egon san, baia atajutik, basotik joate' nitzen, da garrikoa solte nik jakin barik. Saratie atzien entzuten naberen. Nik ariñ da bestia be bai(garrikoa). Subi bat egon san baia saratiagas astiri(k) pe es, izuoteko da salto ein naberen. Konturatu nitzen da garrikoa lau sati ein da erre kara bota naberen.

Gerniketik etorri nitzen oines. Da kamiñoan txakurre. Andik gerotxoau txistue entzu alde batetik da best'aldetik kantestean. Da ni erdizuen. Eutzagañetik etxera, trambidetik etxera. Da ille bizuen baiño geizautan. Gernikera zoan barik egon nitzen.

IPUIÑE

Bein baten etorri nitzen Urkiolatik. Ikusi nabesan amalau amabost urteko neskatiak eskondute mostradorien ardaia edaten. Esan neutzen suiñeri: Orre(k) pai akordeu die arin eskontzeko. Orrek eskondute estaus esa'eusten. Oiñ anilleuek edozeiñek ibiltten deus. Eskonduek estabe ibiltten anillorik. Ori selan ixen leike? Demporak kanbidxeute daus. Ipuiñek ortik urtetan dabe, batak au eiñ bestiak ori eiñ. Ori ondo pentzeu eskero ipuiñe da. Amabost-amasei urteko neskatiak anilluek ibilli eskero se ipuin andixaurik? Mutillek estie dxoango arengana eskonduen anillue ikusi eskero. Sertako dxoango die?

Baya oiñ anillue edoseinek eroaten deu eskondu bari'pe. Baya segattik eroan bier da? Orduen eskonduen anillue setako da? Ortik datos ipuiñek apurke apurke. Oixe da ipuiñe niretzako. Segattik eroan bier dau anillue solteru batek, amabos da amasei urteko neskatiak batek? Ipuiñek ortixik datos. Gero beste puntu bet ipiñi or da areri

puntueri segidu, da olan ipuiñe. Nik orreri, orras anilluas ikusi tte gero beste leku baten, tabernako moduen, ipuiñe segidu egin leike. Ipuñek geidxenak dies paseikoak. Len be ipuiñek, ikusi bakoak gitxi. Ipuñek paseu egin bier dere. Suentzako anilluena esta importantia, baya nietzat bai. Geubien lenau persona edadekoa egoten sanien gedxenetan errosaridxa erreseu, apaldu aurrien edo ostien, da gero egoten sien liburu batzuk, santuen bisitzakas. Da etorte' sien eusuneko andrak ededekoak. Batak leidu da bestiak entzun, puntue eiñ...

Egunes onek androk es aben eukitten ardurarik da egoten sien berandurarte. Gerreurretik ixen san. Gure ama defuntia erdi makalik egote'san beti. Ama ta neu etxien bakarrik. Nik etxeko bierrak be ein bier neusen. Neska sar bat etorten san; jostune san. Gure amak morokille eitte'utzen. Geubien nik, amaitzen sien nire bierrak, da ikusten naben ama goruetan edo josten, da bestia liburuek leiduten goixalderarte.

Egun baten akordeu dxaten: Orreri urten bier dotzet, susteu bier dot. Artu katiak, da gabon esanda joan nitzen goira. Neska sar ori... Urten aben "Bueno Martzeliña (nire ama san) agur, bidxer arte" esanda. Neuk esan naben neure artien: "Bidxer arte bai", Urten dot orra katien saratiegas, da bera asi san ariñeketan, da beste etxien atie jo, da atie jo, esaten: "Maria, sorgiñek urten dostie", ta ango gixonak esa' eutzen: "Eu as sorgiñe, eskapeu emendik". Da Mariak lagundu eutzon. Da bidxek erresetan dxoan sien. Gero berak esan eitten aben berari sorgiñek urten dotziela. Lengo sorgiñek olakuek ixen sien.

Etorri nitzen Morgatik. Da Bixkergiko mendiko barri ondo dxakin neuen. Lenau egon san kurtze bat. Da andik gure etxera etorteko artes segidu bidala. Da belaiñoa egon san. Da esin topeu bidia. Batetik, bestera da ortik ara esen topau lau bide. Ordu bete baño geidxau ein naben. Estakitt segaittik baiño euki naben maldesiñoa edo euki naben tentasiñoa.

Akordau nitzen aittiaren da semiaren egin bier sana da topau naben neure bidia. Laiñoak segidu, baya topau naben bidia. Baten batek bota eusten maldesiñoa atzetik, neska batek edo...

(Encarna Ibarra)

Ni nas Enkarna, Ramón Garamendiren alargune, ta ni jaidxo nitzen Oromiñon, erdiko errotan. Ni nas amabigarrena, nire amak euki sittuen amabi famili da ni nas txikiena, ta klaro, hainbeste famili, ta bat es basan bestie katarrues eoten san beti, medisiñe sala katarruentzat da pareu saidxe d'urune erreta, da galtza baten

sartu ta oixe ipintten eutzien umieri atzetik espaldan d´aurreko paparrien, da klaro! ba estulkada andizek. Ta aixek ipiñi ta kendu, ta kendu ta ipiñi. Ba alan katarroak gitxiau. Oiñgo moduen es egoan esebe. Da gero ba olan atzamarrak igual erre be bai, edo soldu aimbaten artetik. Ta kimpule kapatxu bet ipiñi, koipe gasia, da au kapatxue urtzen sanien koipe gasie solduriko ganien. Aixek ipiñi da igual ba orroa baten, miñes aguanteu esin, da bueno, aixek gaube pasaute kendu ta ipiñi. Antxe koipe gasias atzamarra solduas, gero errementetan san. Orduantxe miñek akabeu. Ser geidxau gure dosue jakittia?

SANTIRETUE

Santiretue ba eitten san san, bedarrak ekarri, landatik artu, ta gero onek... Neu be baten Bilbora joan nitzen da ankia bidxortu neuen. Gure neuen santiretu eittia, da eitten da san-bedarrakas masaje batzuk emon da au esaten da: "Santiretu san urrutu, sana bere lekuen sartu". Gero estakitt ser da ni ixilik, geuse bat eitten dabe. Ta neuri radikal kompletamente kendu eusten. Da anka ipiñi eusten bier dan moduen. Ta gure eusoko goikue be, beste ausoko, ausoko beste andra batek [euki eban]. Da miñes aguanteu esiñik egon san. Santiretu ori esekidxen esebe andriak, da etxera etorri arrastien, ta gero gabien ba lata. Da klaro gero miñes ta esebe. Bidxamonien naiñorako presteu san. Ba orixe mediku andidxe, santietue nietzat. Andidxe baiño andidxau, olako terriblesko merittu bat. Estakitt selan esplikeu, sorginkeridxe esta. Ein kasu neuri ta neure miñeri. Badekosus gure etxien biñaka ganera, es batek, biñaka. Ta bidxek batek baiño bestiak obiau eginda. Asike geuse batzuk niri esker, bi aldiz egin deuskus medikuek.

GARIDXEK SELAN KENTZEN DIES

Garidxek kentzen dies klase askotara. Lau klase beintzet badakidas.

Bat. Baten nire gixonari urte utzen garidxek besoan. Batek esa ´otzen oni: neuk kenduko dotzut, botikera dxoan barik, neuk kenduko dotzut. Artu eban gatza, ta gatza igurdi igurdi garixe dauen lekuen. Da neuken txapie ixetute. Zortzi egun barru an asiko dxako pasetan. Efetibamente igurdi otzen fuerte fuerte, artu bere aurrien ta bera bisten dauela bota neuen txapara. Asi san gatza kri, kri, kri. Da esan notzien:

“Zuek eskapeu emendik”. Da danak or momentuen eskapeu iñ aben arik eta ori gatz ori desaparesidu arte. Nik eskapeu nabem, nire gixonak, danok eskapeu gendun ta gero gari ori gortu san. Zortzigarren egunien desapaesidu san.

Beste modu bat da siridxe paduren umedade lekutan, bedarra es?. Da siridxe deko ixena. Estaitt ba selan esplikau. Bueno ba an siridxe da estakitt ser eitten san, lurpien sartu, tellapien sartu eta telladura bota, estakitt. Baiña an garidxe desapaesidu eitten dies.

Beste modu bat da: Yodo-bedarra esaten dxako, yodo-bedarra aproposa da. Ataltxue solteu, koskeu da urtetan dotzo yodo-untoa. Unteu egunien birriten ta selan unteu alan galdu, gastetan akabeu eitten da garidxe.

Beste modu bet: Ude goidxenien ikoak etorten dienien arek iko txikitxuek eldu barik dausenien, iko txikitxuek sartu, unteu ango partetxuen barruen dekon esnia. Ba aixe esnia, ta garidxeri oixen untadak eiñ egunien iru bat bider. Ta klaro, erre eitten deu ta (.....) esaten dabe lllagak eingo deusela. Baya esteu eitten lllagarik. Selan garidxe desapaesidu, eridie osaten dxoaten da. Ta gero klaro, garidxe sartu [zahartu] orduko lllagatxo bat eitten dxatzu baiña alan da gustis ba ser eitten da? Sartu, garidxe desapaesidu eitten da ta su garbi dxoaten sara. Garirik garire aldie dago. Dago gari klase bat lusiau dienak ariñau sartzen diesanak da beste batzuk, neuk prezisamente, iñora joan barik gari klasia, ipiñi geu baten seguramente eiñ dodas alegin gustidxe. Esan eusten garidxe estala medikuek, espesialistiak, dala seboa kendu ein bi-da asala ta gusti. Esa' eusten estala garidxe medikuek kentzeko, espesialistiak, dala seboa. Kendu ein bier dala asala. Ta len be eiñ ddot ori. Eletrisidadesko orratz batzuk ta eletrisidadia sartu ta atara. Miñe andidxe, indesiñoa emon barik aguanteu eitteko. Señalia baya ontxe kendu bi-ko dogu au edo... esa' eusten medikuek, kendu bi-kot asala. Garidxe erre eitten die eletrisidiadiagas baño garidxe bada, garidxe. Oiñ seboa, garisiko seboa esebek esteu kentzen. Baya badau gari normala, naturala, orren modure nik badakiana kentzen. Oso onak ties.

(D. Aldazabal)

Begisko kontue badakixu seoser?. Begisko kontue bai. Len sarrak eta gurasoak esate' eben "ume orri ipiñi' osu kutune, batan batek begiskoa emoten badotzo". A baño orduko, emen erropatxue prest euren kajatxuen kutune eukitten seuen ama sanak, dana prest.

Beste erremedixo bat esetuten dotena da titidxen miñe esin aguanteu sausenien, umiak esnia es teuelako artu gure. Ba daos kristel batzuk esnia kampa botateko be, miñe kentzeko. Da beste kontu bet da, gabonetan jesarritten garenien aittek egitten euen ogidxe ebai, ogi musturre gorde eitten san, da ori erabilten san txakurren amorrue kentzeko. Ogi satidxori gorde ta ori emoten otzien txakurreri esnien bustitte... Eta estakigu fetxiagattik edo jangoikoaren millagrorik ixengo dan, txakurrek amorrurik geidxau es...

Pastorien ipuiñe

(J. Etx. K. Etx.)

Pastoria mendidxen egote'san ardidxek saintzen. Alako baten aretx ostien lapurre ikusi'uen da tiroa bota eutzen da eskue kendu. Beste egun baten bere txabola ondora etorri dxakon. Pastoria txabolan sartu san, eskupeta bille doalako palntia eitten, da arin eskape'uen lapurrek. Beste baten pastoriari billotzak falta da billotzak falta. Geubien dxoan eskupetias da arbola ganera idxon euen. Alako baten badator lapurre. Tiroa botaten dotzo d'ankan dxo, da arin etxera eskapeu. Urrengo egunien mesia allegeu da abadia etorri es. Berenoa kentzen euela esa'eren, baya a tiroa artute, aixe osatzen egon san.

Beste bein pastoria aretx ganien egoan polboria ipintten eskupetan, da piesa batas sakatzen. Badator lapurre billotzetan da artu bat, da txikitxue dala. D'andik laster badator beste baten bille, topeu arte. Artu deu billotza da badoa.baya orduen pastoria asten da tiroka da billotza bota d'arin eskape'uen. Mesako orduen ba abadia agiri es. Julano kaparrias dau berenoak artute, da abadia ara dxoan da. Da esan ixen berenoa, eskupetien tiroa baiño. (Jose. Eta Klau. Etxebarria, 1986-87 Zornotza. Neuk berbaz artua)

AGOAZILAREN ZEREGINAK

(Jesus Zearreta)

Gure dxantzidxe olan ixete' san: txapel gorridxe, da uniformia kaki kolorekoa, militar antzekoa. Korreak da pistola 9 corto euki geiñun, pistola. Gero Uria alkatiak Bilbokoan moduen 'gorra de plato' ipuñi euskun. Keleko bierra alumbrau publikue ixetu arrastidxen, ga goixien amatau. Gero mataderora dxoan da bixirik txalak pixetu, da gero amaiketan kanalien pixetan barriro. Bittartien ayuntamiento kartillekas bankuetara dxoan libretakas, da eurek pastan erasan. Gero ofisiñen oten giñen. Timbria jote' euskuen eser bi'sanien. Bittartien uren errosiboak eitte'geiñusen. Lau mille ingeru abonau egosan urenak, d'arek danak eskus embier. Kamioya etorte'sanien frutias dendetara banatzen, geu joate'giñen dxakitteko sembat killo itxi deresan, gero impuestue kobretako. Illen atzenien alondigera be, d'ara etorten sien notakas kontrola an be. Gero erresiboak geu'kobreu. Arrastidxen serbisidxa toketan sanien, txarridxe pixetan barridxoetara dxoan bier. Egun bakotxien barridxo batera dxoaten giñen. Kobretan dxoaten giñen asi emen da Bernaraino da Oromiñoraiño (6 kilometro edo gehiago dagoz). Alfombrak sakudietako be orduek egosan: uden sortzietatik beatzietara, da neguen sortzietatik amarretara. Neguen amabidxe san tabernak ixteko ordue. Uden barris goixeko ordu batetan. X. moskorra san da alkatiak aginddu euskun geueko amarrak baiño beranduau topetan ba gendun, erriko kalabosoan sartzeko. Dendak sarratzeko ordue saspiterdidxetan san. Baserri beten billotza illtten erenien iru peseta pageu bier da geu dxoaten giñen kobretan. Orduen bixikletak egosan da batzuk argi barik ibilltte'sien, da matrikula barik. Batzutan jefiak agintze'eusten olakoas topetan ba neusen, multia ipintteko. Bolan be ibilli nas, da kartetan be asko. Kartetan lagunas Etxanon urte bitten kampeoi urte'neuen. Leonenien (Bar León) campeonato ona eitte'san musien. Iruroeta lau pareja oten sien. Juesak ote'sien musien, Jerardo ta Sisto. Saridxe ixete'san trofeo ona: ormako erlojue da afaridxe, da olan. Barridxoetara dxoateko lelekotan bixikletan. Geroau motortxuek erosi eusen ayuntamentuek. 1976-1978 urtietan ayuntamentuek agoasillari danori karneta page'euskun. Erminttetako jaidxe sienien dxoaten giñen. Batzuetan bakarrik, beste batzuetan kontzejalen batas. Santi Kurtzera Aldanaraiño kotxien dxoaten giñen, da andik gora oiñes. Baskaridxe be kotxien, da gero Aldanatik gora astoas idxote'eren. Nigas batera nire anaidxia (Bixente Zearreta) da Euben Felix Isasi egoan. Nire jefia Atxutegi ixte'san. Gero geubekoak sartu sien. Geueko amarretatik goixeko

seiretara ixete'san serbisidxea. Lelelo Sallo da Pako ixen sien. Gero Dionisio Montes da Domingo Agirre ixesien. Atzena orrixek eisieren.

KARRETERUE

Lenau ididxek baserri askotan egosan. Gure aittek lau idi da bos be eukitte'eusen. Eskondu orduko asi san ididxekas. Tratue ei-euen: eun egun Aldasabalentzat bier eiñ, da gero idi parejia beretzat. Olan leleko idi paria beretzat ixen san. Gero pareja bi eukitte'eusen. Da bosgarrena be bai, batan bat manketan basan. Egurre erute'euen Bilborarte. Sortzietan edo arintxoau urten emen da geuberako Etxebarrire. An lo eiñ, da andik urrengo goixien amarretan edo Bilbon. Iru tonelada terdi inguru eroate' euen burkada bakotxien. Deskargeu da gero urten onantza. Baya burdidxe utzik da idi bat ipinitte' euen eurrien da Galdakaorarte olan etorte'san. Bestia atzetik burdidxeri lotute. Gero Galdakaon atzekoa busterridxen ipiñi, da eurrekoa atzien lotute. Egun berien geurdidxen edo allegeta'san etxera. Astien bija bat edo olan eitte'uen. Egurre ekarri bi'xete'san basotik, da txikittu, da prepareu. Gerran ididxek artu Euskadikoak, da eroan eresan Otxandidxora, an frentien bier eitteko. Gu danok urte bier ixen geñun Tursiosera, da andi' etorri giñenien, ididxek etxien egosan. Piñubolak sakuen sartu te lantzien miñ bija bat eroate'uen. Etxanoko sakristeuek landak ekesan emen, Dertimongo ondoan, urrien, da bedar sikue aittek eroat'otzen. Ekarri kamiñora burdi txikidxek, iru burdi txiki edo, da andidxe bete, da Etxanora eroate'uen. Etxanora aldatza dau da Mojetara sakristeuek urtete'uen bei parias. Eurreti bei busterridxe engantxeu d'olan Etxanoko aldatza idxote'ren. Piñuek pe atarate'eusen tarras kamiñora da gero burdidxen eroan. Yarsak postiak saltze'usen piñuas eindde. Burdidxen atzerakargia es eitteko, tronko bat tirien ganien ipintte'uen. Sulo bat eitte'otzen larakoa sartzeko, da tirien moduen gelditzen san, da atzerakargia esan eitten olan. Asken aldidxen dediketa'san aretx okerrak ataraten. Arrietak euki euen serria Kaittan d'ara eroate'usen olako aretx satidxek. An serratu da kamioyen Bermiora eate'eresan, barkuentzat edo olan. Gitxi gorabera 1922 eta 1950 bittartien ibilli san gure aitte karreteru bierretan. (J.G).

BIZKARGIKO GIÑERRA LOREA

Arkotxan idi parejia ba-eu-en. Da desafidxoia bota otzen Ergoidxengo idi parejiari Dxoan sien da Ergoidxengoak irebasi eren. D'olan kantete'ren: 'Santi Kurtz Bixkergiko giñerra lorie / baba gustidzek baiño askos dok obie'. Beste baten Arkotxako ididzek desafidxoia bot'otzien Boroako idixeri, da oingoan Arkotxakoak irebasi. Olan kantete'ren orduen: 'Txarako sierreko giñerra lorie / baba gustidzek baiño askos dok obie', (Txarako sierra, (travesía de Txara) Belatxikietarantza bidien dauen lurralde bat da. (J.E., Tx. E.)

ANTZARRENA

Emen eukitte'eresan etxe bakotxien 10 edo 15 antzar d'aren lumie saltze'eren almoadak eitteko. Antzarrari bixirik lumek atara da lume bakotxeko antzarrak sarataka, sarataka asten sien. Lumie saldu eitte'abien almoadak eitteko. Udebarridxen atxera eruete'eresan. Etxien ondo goberneute egosan, baya atxera eruete'geñusenien, nobera baiño ariñau etxien. An gelditze'sienien, astien bat dxoate'san ikusten selan dausen da apur bet saintzeko be. Gure aittek esate'uen antzarran lumie estimedue sala almoadak eitteko (J. E., Tx. E.)

KARRAMATERUE

Karramateruek etorten sien ortik Rioja aldetik edo. Barriketan ardauek ekarte'eren. Da or Agria parien edo errementaridxe egoan da antxe gelditzen sien. Bakotxien bat etorte'san. Karroa itxi da nonora juete'sanien, errementaridzek burdiñe barra bat gorittu da suloa eitto'tzen barrikiari d'ardaua atara. Gero tapotza egurras eindde sartze'ban suloa, da gero ondo tapeu, da iketzas baltzittu, disimuletako. Pastoriak ukusi'uen. Orduen gastie san d'arek konte' usten. Ardaue d'olako jeneruek ekarte'eresan. Bilbora eruete'eresan. Da emetik be eruete'eren seoser. Bernagoittitik iketza da egur iketza eruete'eren. Egun beten juen d'urrenguen etorte'sien. Orduen kamiñue' pe txarrak sien, arridxe d'olan. Kaballuek da muluek eruete'eresan karramatuek tirtzeko. Da ididzek pe bai. Orduen "ferreria" edo oten sien, d'arako san iketza. Deskantzetako lekuek oten sien kamiño basterrien. Onantza artzen dan lekuen

be baegoan. Txintxillena da baserridxe. Or papelera onduen be baegan beste bat. (E.A.)

KARLISTEN GERRAKO HISTORIAK

Karlistek galdu eren gerria da alfonsiñuek irebasi. Anaidxe bi egosan Bernagoittin karlistek, Santa Poliñen. Idxorreta ixengo da ori. Osketa kamiñean asikeran dau Santa Poliñe. Dirue eitte'eren, peseta biko faltzue. Da kamiñotik alfonsiñuek pastan sienien tiroka asten sien andi'goitti. Baten alfonsiñuek, bestiok dxakin barik soldadu moltzotxue bieldu eren Bernagoittire. Euren aittek abixeu otzien: mutillek galdute sau- sie, etxe bueltia soldaus beterik dxauk. Mutillok, bata(k) telleture idxon da telletutik ondoko ereiñotzera salto ei 'ban. Da andik goittik bera bajatu da eskapeu. Tiroka asi, da eridu eren ankan. Eskapa, orbel pillo baten eskuteu san. Pentzeu eu-en: 'emen enadxauk ondo'. Da otarte batera dxoan san. Andik lasterrera ikuste'eu-sen otartetik soldau-ek bayonetakas orbela altzetan dabixela. Eridute mantxarik itxi es eittiaren, errekatxarkotik, goittik bera, errekatxarkorik errekatxarkora eskapeu. Beste anaidxie aitte sarra dan moduen, erropa sarrak jantzitte, igitaidxe artu da soldau erdittik paseu san. Nora soas? Bedarretan noa. Soldau artetik paseu, sestue bota, d'ariñeketan asi sen. Soldauk tiroka asi sien baya berandu, es eren asarteu. Gero beste anaidxie topeu da kueba batera erue'eu-en da an sanieu san etxuria. Santa Lusidzeko kueban edo an kureu sala. Da gero andik Frantzidxera edo eskapeu erela, esat'eren. (E.A.)

Anai bidxok abadie be eseren gogoko. Da geu baten asto bateri kampaako sokie lotu d'eurrien porruiek ipiñi otziesan. D'astuek porruiek jateko tirekadia emon. Da kampayak jote'ban gauerdidxen. Abadiiek balkoara urten gabien da eser ukusi es seguru. Abadie be larri. D'urrengo goixien juen die, d'astue kampayan sokiari lotute, da porru pillue aurrien, d'astoa tireka. (E. A.)

Botagabie lenau eitten ei sen. "Despedida de soltero" ei sen. Garrafoye, d'ardaue erueten ei sen. Neskie Betzuengue san da Betzuenera doasela, urte'otzie baso baten anaidxok, da kendu otzies ardauek, da dana. Botagabie lenau esate'san etxurie. Botie ibiltteko san etxurie. (E. A.)

Karliste bat preso arrapeu eren emen ingeruen. Da preso erue'eren Durongora. Geubien beste karliste batek kaballoa artu, da juen san Durongora kaballo ganien. Baekidxen kartzelia non egoan, da preso eu-en bentanara urreratu san kaballo

ganien. Deittu otzon presoari bere ixena esanda: fulano!. Bentanara urte'eu-en da bertan tirue emon da ill eu-en deklareu estaidxen. Alan esate'urien'. (E.A.)

Karlisten demporan san. Or baserri beten Jauregik kaballuek eukesan. Baya kaballo onak. Bera karlistie san da billur san kenduko eutziesala kaballuok Da gure amamari grdetako eskatu otzen. Gure amamak sartu eusen etxe sarreko kortan da antxe euki sittuen atara barik. Dxana bertara eruen da antxe gorde sittuen iñok eser dxakin barik. Olan salbeu sittuen Jauregidxen kaballuok. Jauregidxentzat bentajia ixé'san, da eskerrak emoteko desimo bat emo'otzen. Da tokeu eiñ dxakon loteridxe. Bieskotxie Jauregidxena san. Da kampoko umiek be asten euki abiesan. (M. L.)

IKAZGIÑEN POSTUREA

Lenau basuetan da eitten ei san iketza. Batek kontete'ue-en posturie eiñ-erela ikesgiñek. Kantara bat arda, neska bateri ari barik esetz entregeu jostorratza. Da surrumurrue artu dere ba erropakas jueten bada, erropiak aridxe dekela da galdu eingo deu-ela posturie. Da pentzetan deu billosik jun bi-ko deu-ela. Da idias gorputz bueltan, idia lotu dere sidor batas. Andik mendittik San Antoniñora ekarri bier orratza. Da irebasi dere kantara arda ori. Da gero pentze'dere kantarie osue arda asko sala, da kantaraerdi arda ekartie, da beste erdidxen diruas sortzi libre asukera erostie. Kantara erdidxeri nasteu otziesan 8 libre asukera. Ipiñi dere meskli-ori eiñdde, moskortu die da txondorrak sue artu da dana erre gero. (E.A.)

ALTOS HORNOS-ko MITIÑA

Emen eusoko batek Altos Hornos-en bier eitte'eu-en. Geriakue san ori. Juen san bierrera da egun orretan mitiñe eu-en. La Pasionaria, Leandro Carro, Gomes d'orrek egosan mitiñien. Alako baten beste batek esa'eban: 'Los hábitos negros hay que teñirlos de rojo con su propia sangre'. Abadiakaittik esa'uen ori mitiñien. Gero 'pido la palabra, pido la palabra, pido la palabra' asi sien asko, da pistolak ataata tiruek eta eriduek be egon sien, da berak eskapeu'ela, esa'uen. Olan esate'uen gure eusokoak da biergiñen artien anarkistek be baeuesala. An kontramaixue okerra sala kontet'eu en orrek. (E.A.)

BARBERUE

Euben an tarberran eu-en barberue. Da San Antoniñon oten sanak, gero Durungon ipini eu-en barberidxe. Orrek sapatuetan d'olan eitte'eu-en bier Euben. Berak eitte'eu-en San Antoniñon da Euben. Gero Durungora juen san d'andixi ataate'eu-en bizimodue. (E. A.)

SINISKERAK

1.1. Sorginkeriak.

Aittitte sestoak eitten edo laban, da amama eskatzien, armosetako esnia egosten. Da bentanatik diñotzo: "Ene, txuridxe gora, txuridxe gora, txuridxe gora". Da eseuen ukusten nok esa'otzen ori. Da orren lobiak esat'eu, Eibarren pistolak eitten asi sienien, selan akabeu sien orrek.

Tximiñittik, goittik bera katuen antzeko sera sartu-te ba sorgiñe sala esat'eurela. Tenasak edo egurre bota, da urrengoko egunien esa'erela ba se: "Ene, ausoko andra sarra kojo dabill. Aixé ixen da orduen gure atzoko katue".

Laminak.

Láminek. Lámiñe pósuen da lagúnen ántzeko fórmia éukitt'eren, baña ulía orrástu da ulía orrástu íbiltten síela. Ta ésat'eutzíela se, eurek gáltzeko, San Juan egúnien dxádxoko béintxa párejia, bíkotxak tópetako, ta árixekas ítailletuteko éurek dáusen íngerue. Da a éiñ eskero, éurek béres desaparésietan diésala.

Bíkotxak síela, aixé san mérittue. Nik éstaitt ba se íxengo sán ostántxien. Esaterena.

Anbotoko Señoria.

Ambotoko señoia, nik entzune lenau sarrari, ba pasetan sala Gorbéidxera da sue eroat'euela átzien. Da or eitt'euela démporia, da atzera dxoaten sala Ambotora. Ude partera Gorbeidxera, da gero atzera an démporia ein, da átzera béstera pastan sála.

Ollarrak eta txakurrak.

Itauna: Ollarrak ordutik kanpora joten euenien, baten bat ilgo sala edo ser esaten eben?

Bai, iños entzundot. O sea ke, ollarrak kantetan baeuen illuntzidxen edo geu sarreran, bere ordutik barik, triste ixetesan ori. Da entzute' neutzien nik se: "Baten baten nobedadia ixengo da ori".

Da "bai iños an geure ausunen be paseu sen ori. Ollarrak be kukurruku eiñ ddeu atzo illuntzidxen". D'andik egun gitxi barru bat ill.

Txakurrek negar eitten baeben, ori be señaie txarra sala esat'eren, o sea ke, baten baten nobedadia ixengo sala.

Itauna: Txakurrek igerri egiten eben ala?

Etxekoa esta be, eusunen ixeten basan nobedadia, barrenteu seoser. Nik estakitt-ba ori selan ixengo san.

Ollarrak ordutik kampora kantetan baeben, eurek etxuria, aixe misteridxoá euki, nobedadia ekarten serari.

IPUINAK.

2. 1. Lapur ipuinak.

2.1.1. Patakon.

Patakon, Larrabetzuko semia sala esat'euren, da dediketan san ba, lapurretan. Bai lapurretan, da eukenari kendu te estekonari emon eitt'otzela.

Da Olabenen, (Olabene esat'otzien, oiñ be an dau), da angoa gixona. Dana san a, aritxa ta gastaña, da an neguen ba orduen gánauentzako galtzu pur bet besterik esan'oten. Da untzurridxe arboletan, da edurregas dxoan san ara Olabene untzurriten, da: -Nora oa, Olabe? -Patakonek esa'otzen. Da, -Ba, untzurri apur beten bille nadxoak ba. -Eutzo pesta biko bat, da erosi galtzue.

Da gero andik urtenda, ba an eurreko etxe sarrien, lusien, Perutxu ta bixi siela, famelidxe bakoak arek. Da geubien: "Dan, dan, dan", atia jo ta esa'otzen: - 'Benga or dausenak danak'. Da emon ei'tziesala.

Da gero, urte eurela, da andriak andik gerotxoau esa'utzela: -Perutxu, arrenekoa'pe eroan deres? Arrenekoa'pe? Ta: -Es.

Bestiak ostendute egon siela da, entzuten da, se esaten deren. Da atzera buelteute, etorri-tte, "dan, dan", atia jo ta esa'otziela: -Benga arrenekoak be. Da danak sertu otziesala, ostu otziesala. Da ori Patakon gero, ba beste gaste bat artu gure ixen eidxeren, ba beste lagun betzuk, aixe bere ofesidxa erakusten. Da esan eitzen se: -Errasarik badekosu? Te: -Errasarik es, estekot ba. Ta: -Gatxa ixengo da orduen ikestia, errasarik espadekosu.

Da dxoan sien. -Dxoan em-b-iu ba. Da dxoan sien etxe batera. Sartu sien, da bebixen arrapetan, da barrent'euriesan. Baya Patakon sur. Patakonek béstia bota'uen gora, da bera' petik urten. Da etxia bueltan artu otzien bestiak, da asi dxakiesan: -Emen dau Patakon, da emen dau Patakon ori. "Da Patakon or es, emen Patakon", bestiak kontestetu otzien. Da eskapeu eyotzien. Da a bestia arrapeu eren. Da ba, ori noskoa ixengo dan Jainkoak daki.

2.1.2. Bildots lapurra.

Leittiko aistidxe esat'otzien, aisti andidxe egon san, pagoak, gastaiñek, aretxa, da terriblia. Da antxe Gosikera bidien emetik doala, tontorra. Gosike olan agertzen da andik tontorretik. Da emendik onantza a espalda dana. Nire txiki demporan aretxa san, aretxa, gastañia ta pagoa. Da an lenau ba txabolia ardidxek eukitteko. Da abarrakas eiñdde. Neuk be esetute' neuen Dertia bekoan abarrakas eiñe, a angoa eneuen esetu baya. Dertia bekotik, an Ixesi partera espaldatxuen egoan abarrakas eiñeko txabolia an.

Da billotzak ba dxadxoten dxakiesan an. Da billotza falteu, beti billotzik onena falta. Da "Panadero" esat'otzien Atxiertako bateri: aren desendientiak ixengo sien, gero be egosanak. Da dana dala ta: -Es ba, arrapeko dxoat ba.

Da idxon aretx ganera. Eskupetak lenau kañutik kargeu ta pistoia aurretik sartu te olakoak. Da aretx ganien. Etorri da bestiori billotzetan da, arrape deu billotza ta anditxoau edo loditxoau gure. Ari itxitte, beste bat. Bi edo iru arrape'ittus, da itxi otzie. Da akabukoari obátu'otzo, ártu lepóan da úrtten deu txábolatik. Da bestiak damba! Emo'otzo tíroa aretx ganetik. Da ba, al deuen moduen dxoan bik-uen segun esat'erendik. Ta gero mesia ba Gorosiken domeketan. Da mesara jéntia, da mesarako ordue ta abadia falta, ta: -Nora dxoanda ba abadia? Ta: -"Ba Mendiune esat'otzien etxe orreri, da julano Mendiungoa, berenoen kaparriak obatute ei dau txarto ta arana

dxoan ei da abadia". Da bestia pipias fumetan ba lagunekas, batera bestera, orrek ipuiñok ésatén. Ta bera ixen san tíroak emo'otzesana.

2.1.3. Ikazgina ta lapurra.

Da gero beste bat. An aistidxe ta aretxa san. Da an ibilli sien. Da lapurretan eitteko ostendute ei-dxegoan bat. Orduen demporan ba eskupetadunik b'es. Olantxe, kont'euén bat ixen esien. Gorosikekoa, Atxiertakoa-edo, esat'euren ba, eskupetadune ibilli sala ta areri abixeu eidxotzien. Da aretx ostien eidxegoan ostendute lapurre. Da orreri esa'otzien, da Atxiertakoak es'otzien se: - Ontxe noa. Da eskue euken, olan arbolien kontran, bisten. Da bestiak se eitzen, ba, eskupetias eskueri tiroa emon. Da eskap'otzien, eskue galdute. Da gero andik demporagarrenien, ba esku ori osatu dxakon ta esku faltan ibiltten san a. Da, ibiltten san ostabe lengo antzera. Ba lénau, ikesgiñek basoetan ibiltten sien, da ikesgiñetatik ikesgiñetara, olan ostuten. Da au Kakuitxa esaten dxakon, Biskergittik Gosikerantza, an atx aspidxen, selai une bat egoan, da aistidxe egoan an, da gastaiñek be bai, asko. Neu pe eseutu neittusen arek. Nik esetu orduko botaeikoak be eperdidxek begosan, da an, asko ongo sien aretxak. Da ikesgiñen ibilli eisen Atxiertako ori an. Txabolía soidxekas da abarrakas einye. Da bakarrik on eisen.

Da bestia dxoan ei dxakon da esan eidxotzen se, olan eskue atarata: -I lagun, akordetaas urlidxe demporatan niri se istien? Da bestiak itxi bertan bera tretxuek, da iketz orreri, txabolara dxoan, d'asi dxakon asterkatuten, ba seuser dekolakoan, demostrasiñoa eitten. Bestiak emon ariñeri, d'eskapeu.

Baña eseuken eskupetarik, baya aixe eiñ.

2.2. Lan ipuinak.

2.2.1. Bixi sien andra bat eta gixon bat etxe baten, baserri baten. Da gixona ibiltten san bierrien soloan, da basoan da olan. Da andria be bai. Baya egurdidxen etxera etorten sanien, andriak beskaridxe ipintt'eutzen gixonari, da gixonak dxat'euén, da andriak dxateko ganarik es. Da beti andra ederra. Da bein baten akordeu dxakon gixonari: "Es ba, sainddu eiñ biot auxe. Eroa'euén basora, urrin, aspigarridxe ebaten, idia ta olan. Lenao serrias ebate'san idia-ta. Da or amaika t'erdidxek ingeruen andriak eiñ'euén otz bat: Eeeee! -Julano, alboko julana dau deidxes.

-Ser bi-su ba?

-Ba etxera dxoateko diño, arin. Seoser biko deu bere seregiñen baterakota.

-Bueno, ba orduen, soas.

Da orduen gixonak ey-euen ba atzetik urten, da dxoan san andrien atzetik, baya diferentzituas. Andriari kankuleu ei-tzen berak bere demporien tamañue, da itxaun ei-tzen ostendute selan ebillen etxien saintzeko. D'andriak etxera allegeu, sue prepareu ta arrutze tortillia ey-euen, da dxaten asi sen. Da gero esa'uen se:

"Arrutze mordo biribil ederra
euspeko opiltxu maitia"

Da botilletik atara ta tragutxue be ey-uen. Da:

"Altza su brindotxu maitia
amar senar baño dok obia".

Da orduen gixona etorri dxakon da esa'otzen: -Orduen amar senar baño obia brindotxu maitia. Ba neuk atarako'tzut oin palixiagas, astinddu-aldi politte.

2.2.2. Abade otzaragilea.

Antxiñeko demporetan oingo beste dxakituri esan ixengo da erri baten abade

bat egon san, erri txikitxue. Da sestoak eitten atarat'euen bere biximodue. Egunien sesto bat eitt'euen. D'egun baten deskoideu edo ... aistu eiñ dxakon sesto ori eittia. Da sei egunien sei sesto eitten seituen. Da orduen bost baño es, orduen aste atan. Ta allegeu san domekia ta jentia batu san mesarako sasoyen d'abaderik esan agiri. Da dxoan sien bille, da ia aber se pastan dan, abadiari esa'otzien. Da abadiak esa'otzien: -Ba nik bost sesto baño estoas eiñ da selan ixengo da ba astia akabetia. Ta ba neu orduen konfundiduko nitzen.

Da esa'uen ba se abadiak:

-Ba nik emongo dotzuet oin sermoi bat:

Nik goixien dxan doan arto satittoa
emongo dotzuet sermoia

balidxo deuen mesato bat.

Nik goixien dxan doan arto satittoa
orixe eingo'tzuet sermoatoo

balidxoko deuen mesatoa.

2.2.3. Antxiñeko sarrak esat'eurien Arratidxen bixi siela andra-gixonak, famelidxe bakoak. Eta ba iketsiñen da dediketetan siela lenau ba euren seregiñetan, seuser ba atarateko bixi-modureko. Ta gixona geixotu san da geixotu sanien ba oyen pareu bier da oya ipiñi otzen andriak baya ... Ta medikue ekarri otzien ta medikuek esa'otzien txarto dauela ta elixakoak bi-sittuela. Ta elixakoari abixeu otzien da oya dxasteko ipiñi otziesan iket-sakuek. Da abadia etorri san da abadiak esa'otzien se: - Ene, andria estekosu beste erropa garbidxaurik au baño oya dxasteko? Es ba etxat suertetan, se guk ba erdi dxadxetan be mesia entzuten usetan ixen du te, bierrik es eitten be bai. Da orduen erantzut'zen abadiak se: - Ba dxaidxetan be bier ein baseñun, oba, es erdi dxadxetan bakarrik.

2.2.4. Praisku.

Praixku gexotu san eta egon san geixorik da andriak eroat'otzen dxatekoa, baya gixonak eseuken dxateko ganarik. Da "ai Praisku, Praisku -esat'otzen- ill ein bier dosu. Sardiñe sarra ta makallau erria surtepien iños estotzu ba falta".

Kiputxe san.

2.2.5. Arpel andi.

Arpel-Andi bixi san -alan esate'ren- Solagungo beko etxe neusidxen. Da arpela sala ta bera bixirik enterreu gurau deuela bier eiñ baño. Da eroa'eren ba bixirik enterretan kajan sartute. Da ara beko erre kara allegeu sien orduen, esa'otzen an batek se: -Nor daroasue or?. Da: -Arpel-Andi. -Nora? Ta: -Bixirik enterretan. -Ene neuk emong'otzet kuarta bat arto, es eixue bixirik enterreu. Da orduen esa'otzen Arpel Andik, burue altzeute: -Erreta ala erre barik? -Erre, barik, erre barik pe esta gitxi. -Eurrera, eurrera -esa'otzien Arpel-Andik.

Eta enterretan eroa'eurien.

2.3. Arimen ipuinak.

2.3.1. Gauerdiko mezia.

Mutill sar bat elixara dxoaten san illuntzetan -aittek esat'euen ori-, beren érresuek edo beren orasiñoak edo beren kápritxoa eitten. Da egon san bere sérien, da bera kónturetu orduko átiak, elíxakoak, itxi sittuesan, ésat'euren.

Da bákarrík, billurres-billures on sála da geuérdidxe paseu sánien abade bat sartu sala átetik elixatik, ta dxoan sála árin a sártu sánien ba, berak úrtén éingo éuelakoan, baia atia ítxitte. Da abadia dxoan sála, altára áurrien errebérentzidxe eiñdde sankristéridxera. Dxantzi d'etórri sala, ta esa'uela se: -Bádau elix onetan por si ákaso lagun bat mesia niri erasoko deústenik? Eta billuregas esotzela eser kóntesteu. Da egon sala apur baten da iñor etxakónien agertu dxoan sala átzera ta erántzi da átzera urt'euela. Da urt'euén órduen -abadiak- dxoan sála arin ostábe atéra, baya atia ítxitte. Da gero egune sabaldu artiño ba antxe egon bier. Da góixien átiak sabaldu eresánien, elíxakoak, ba úrt'euela da etxera dxoan, da dirdírike egon sala. Da aber se pastan dxakon, da: -Auxe d'auxe paseu dxat. Elixan egon nas da abade bat sartu de, guérdidxe paseu dánien, da dxoan da sankristéridxera d'etórri de dxántzitte mesia ésateko ta esan deu se: -Aber badáuen elix onétan iñor mésia erásoko léukenik. Nik estótzet kóntesteu, billur ixenas-da, estot euki adórerik-eta.

Da úrrungoko egúnien: "Geur dxoango sinttikés? Da: -Bai". Da dxoan siela bera ta, ta ba sankristeue edo lagunén batzuk, sembat estakitt.

Da bárdin etorri sála. Sártu sala átetik baya atia ítxitte egon sála. Da dxoan sála sankristéridxera, dxantzi sakristéridxén, etórri sála altárara da esa'uela se: "Bádau elíxa onétan mésia erásoko leukétenik niri?". Sankristéuek kontesteu ótzela ba se: "-Parte óneko bada, bai jauna". "-Ogetamar urte daróas mesa báten fáltan séruen sártzeko da auxe mésieu ákabetan dóanien sartzen nas sérure" -esa'otziela. O sea ke mésiori sélebre'uela, ta ántxe despédidu síela, águr éiñdde -ésat'euren.

2.3.2. Arimia arrika.

O sea ke, áingeru bet il sála ésate'ren (umia, ume txikidxe, ume gastia), da béste bat ba mutílle. Nik éstaitt sémbat urte inguru éuko sittuen, ogei urte buelta ingurukoa.

Da gastiarí edo, etxé-aurren tak! Da tak!, arridxe. Da arridxe markeute ipini ta ostabe aixe arridxe. Da ba gixonak pareu (bat esat'eurién pistolias, errebolbérás, pareu sala), tíroak bóateko arridxe datorrenien. Da arridxe inddertzu es eisen etorten (esat'euren es sala inddertzu etorten). Da beti puntu baten, antzera dxeusten ei sen arridxe léku bardiñ antzien. Da errebolberras pareu sana: -Ontxe botako dxoat ba. Ta tietu ta díspareu es, erregular. Atzera be tietu ta díspareu es. Solteu errebolberra, ipiñi ta: -Ondo dau ba. Ta bariro be, ba díspareu es. Da gero ba, ume bátek, mútiko batek íkust'úela arto ganietan lagúnen ántzeko bultue dabillega. Da esa'otziela se areri ba "ia se ofresietan dxkon" ésateko ikusten déuenien. Da ikusi

úela, da esa'otziela se, préguntótzela mútiko orri: -Ia, aber, se ofresietan dxakon. Kontesteu ótzela ba se: -Mesa bat. Da órduentxe ákabeu síela ango árrike gustidzek ésat'euren. Il san mutíllena san etxía, da bestia, umia, san errentadória. Personien ántzekoa san arridzek bótat'éusena.

2.4. Kobetako ipuinak.

2.4.1. Anboto kobako ipuina.

Embra bat uretan juen ei sonan da esan eidxoan: -Gurien ure ipintteko diabrurik be estau. Da persona bat topeu eidxeban da esa'otzen: -Alaba jostune emoten badeustesu neuk ipiñiko tzut atietan ure. Da: Bayetz, aginddu ei-tzen. Da gero ba sutonduen egon ei san, da abadieri esan ei-tzen. Da abadiak: -Es es, orretan ixteko alabiori. Da gero beidxe an goidxen landan baten, da beidxori etorri es, da esan ei-tzen: -Ekarrixu a beidxe. Juen da neskiori beitten da beidxori da alabie, bidxek desaparesidu. Da gero ba abadieri atzera esan da esan ei-tzien: -Ba antxe, antxe kueban egongo da. Ta juen ei sien. Da estudiantiek eta frailliek eta jun ei sien. Da sartu ei san bat soka bigas, Amboto kuebara. Soka bat euki ei dxoan atzetik, deskoiduen ser txarra badau, ba tietzeko. Berbarik ein barik tietzeko, goidxen eusenak tietzeko. Sartu ei san da ulia orrasten ei dxabien neskiורי, señoriori. Da esan eitzen urria, intzentzue da siderra, da artzeko berak gure'ittuenak. Mutil orrek ba esetz, esteuela gure berak eser. Ta sakatu ei-tzen sokiorri gora tietzeko. Da esan eitzen: -Ai or goidxen dekosusenak (or dekosusenak) espaseunkos, su be amen geratuko seintzekes.

Da gero a mutille sustaute ill ein soan. Bertako sustuas.

2.5. Ehiza ipuinak.

2.5.1. Abade ehiztaria.

(Itauna: Arkotxako ori nor san?)

"Orrek sien, esateuren, o sea ke abadiak, kasan afesiño andidxe eukela da gusteu dxakola kasan. Ta egon sala mesia esaten da txakurrek kampotik siela, da txakurrok erbidxe eroa'tziela eurrien artute, eurrien, da txakur-eusike. Da bertan itxi mesiarri da urte'uela erbidxen atzien abadiak. Da gero ein sala atzera mesia esateko moduen pareu. Asten sala dxasten d'esin dxantzi. D'orreri esat'otzien "Juaniko txakurrek".

Neuk be entzun doas olako txakurren eusidxe da beste askori be entzun dotziet geubien edo geuberdi inguruen edo olan dempora klarue dauenien, eusidxe batak lodidxe eittuela da bestiak meya. Da ni baten olantxek ba ardidxen serien kampotik ibiltten nitzen, ara Montorreraíño arin-arin-arin, baya emote'uren, an urretik urriñera. Da neurartien ein neuen: "Aiko, entzunde dxekoat len be Joaniko txakurrek eusidxe eitten deresala, da orrixek ixengo'sak ba derrigor".

2.6. Jenobeba.

Antxiñeko demporatan bixi ixen san matrimoniño bat. Gixona san militarra. Eta andriak euken ixena Jenobeba. Da gixona gerratara edo eroate'utzien, eta beren palasidxoan itxi eban kridxeu betegas, kargu eiñ daidxon etxiari ta famelidxeri. Eta famelidxe ixen orduko bera presondi baten sartu eren. Asi san kridxeue karta faltzoak gixonari eitten, bielduten. Eta andriak pentzete'uen gixona ildde sala, esotzen kontestetan-da. Arrapet'otzesan kridxeuek kartak da andriari emon barik, berak gure deuen bieldute'utzen kartetan gixonari. Eta demporia dxoan, demporia etorri, asi sen bieltzen kartetan, bide txarrien edo bixi modu txarrien dabillega andria. Da alan esin leidxela sertu, ta ba ill edo ein bi-ko deuela. Ta gixona engañeu euen orrekas kontuekas. Da gixonak bieldu eutzen ba olan basan, il deidxela. Eta gixonak ba aginddu eutzen iltteko ba olan basan. Da, ba kridxeue bere faltzokeridxas ibilli san, ta bieldu seittuen beste gixon batzuk artute, eroan basamorture ta il deidxela ta ekarri deidxela gibel bat. Gibela muestra, siñestu deidxen berak, selan ill deren. Da dxoan sien gixoneskoak da ba an, orretan, kartzelara sartu eben. Kartzelan egoala ixer'eban famelidxe, mutikotxu bet. Da ixena andriak esa'uen-se ipintteko aittenas Tris-Tan sala-ta. Da gero eroa'euren ba kartzelatik iltteko serera, basamorture. Da basamorture allegeu sienien ba beragas dxoan sienak, batak kendu eutzen umia. Da andriak esa'eutzen: -Ene! es eistesue niri umia kendu, neu il neixue leleko. Se umia iltten badostesue lelengo, birriten iltten nosue.

Da onek berbok entzunik, errukitu sien gustis bidxek. Eta se eiñ eben? Itxi eutzien umetxu ori berari. Ta esan eutzien es deittela agertu geidxau errire. Eta txakurtxu bat eukien eurekin. Da a txakurre ill da gibela artute erakutzi eutzien beren kridxeu faltzoari. Onek demporak paseu te gero, ba demporias agertu san gixona bere etxera. Allegeu san etxera ta kridxeue bakarrik topeu euen. Baya eurkitzen san triste, oso triste.

Da bein baten esa'otzen kridxeuek ain triste ia se eitten deuen. Egun baten dxoan bi-dogu ortik basotik kasan, buelta bat eitten. Ta urten eben ta dxoan sien mendi batera. Ta bajoyesan euren kasa bille, ta alako atx sulo baten ikusi eben mutiko baten irudi bat.

Ta aren eurrien baseuntz bat. Ta baseuntzeri tirituteko apunte'otzien euren armiagas. Da baseuntzek anka bat altzeu otzen lelengo. Da gero esa'eutzen: - Es tiretu, ni nas seure semia asten nauen animalidxe-ta. Ikaraturik, gero aurreratxoago joan da ikusi eren mutiko bat billosik, mutiko ederra. Da emendik eurrera badxoyesan, baseuntzen serera, ta baseuntzek eroan seittuen bere atx sulora. Ta ikusi eren mutikoa billosik. Eta ain ederra.

Ta kridxeuek ikusi ebanien a, bueltia artu, d'eskapeu euen arifeketan al deuen lekure. Da dxoan san al deuen lekure.

Gixonak artu bueltia, ta dxoan san etxera d'esan eutzien bere serbitzaridxeri: -Artu kotxia saldirik onenakas da etorri neugas. Ta kotxia be urres dxantzitte eroan euela, esateren.

T'eldu sien ta artu ebesan ama semiak eta baseuntze euren atzetik. Eldu sien etxera eta ipiñi eben euren kuaturik ederrenien. Baña baseuntze esan kentzen iños, arik eta umetxue antxe sertu arte.

Baña amak eseuken osasunik. Eta il san dempora gitxi barru. Da baseuntze ba gero eurekin ixen san. Da andik gero aldendu sien baseuntze ta aitte. Da umia eurekin aitten etxien geratu san. Aitte be seren batera dxoan san.

Da gero kridxeuek, entzu'eren les emen ori (orrek geusok), aitte asi san kridxeuen bille. Da dxoan san kridxeuen bille. Da kridxeuek bekidxen beren atzien etorrena aitte ta artu saldi bat eta dxoan san eskapa. Eta paseu gure ix'e'eban erreka bat eta dxoan san estu te larri; salto eikeran errekoa, saldidxek bota ey-uen. Da jausi san erre kara da itto ein san. Da ortxe il san aren bisitza.

2.7. Gariaren ipuina.

2.7.1. San Martin eta diabrue.

Diabruek garidxek jota, da gari pillo itzela ei dxeken. Da San Martin juen ei san. Garidxek jota ei dxekosak diabruek, da araxe juen ei san da esan eitzen diabrueri:

-Gurok gari pilluen señek salto andidxau eiñ?

-Bai, gure bok.

San Martiñek sapata andidxeek solte da gari pilloan erdire salto. Da diabruék pastan deu aidien, da bestiek erdire, erdire. Sapatak bete sittuenien:

-Bueno, banadxuek etxera.

Etxera juen ei san garidxorras.

-Garidxe bai badok baya nos eraitten dan b'estakitt-eta. Bentanapera juen bi-ot entzuten.

Juen da bentanara, ta diabruék esan eitzen bestieri: -Ak eruen dxok garidxe, baya etxakik nos eraitten dan, semendidxen eraittok-eta. Da bestie etxera. Entzunde gero, etxera. Da etxera jun ei san da: -Semendidxen eraitten die garidxeek.

Garidxok ereiñ sittuen, da garidxeek onak. Diabruék esan ei-tzen abadieri: -Ño, San Martiñek garidxeek ostu ostesak, baya etxakik, arek apurtzeko kaballuek badxekoas nik. Abadieek: -Nik be bai arek geratzeko frenuek. Da gero kridxerieri esan eitzen: -Trumo-lañoa ikusten badosu gero, diar eiñ. Da kridxediori distraidute egon ei san da laños kargeu. Deittu ei-tzen da dana lañue. Da abadie konjuruen asi ei san da esin domiñau. Alakoen baten batu ei dxakon serera da sapatie bota ei-tzen aidien. Orture, bere orture dana deskarge dxoan.

Da garidxok diabruék osorik.

Da gero andik urrungo, joan ei san basora. San Martiñek topeu eban diabrué ta: -Ser dabik? Eta -Euntzek falta-ta. -Selako euntzek dosak ba? Ta: -Belaun unduek nirieek.

Juen ei sien da topeu ei sittuesan diabruen euntzek ta danak belaun unduek. Danak ule barik belaunetan. Da diabrué bape euntz barik geratu. Danak berak eroan.

2.8. Tartalo.

Pastore bat juen ei san. Jentille ikusi eidxeban. Da topeu eban ostatue. Da juen ei san ara. Ta: -Eup! eiñ eidxeban da urten ei-dxotzen jentillek. Da: -Ser dabik ba? Ta: -Ba amen ardi bille edo pastore serien. -Berandu dok, eta ... ba etorri ai; geurien, amen dxauk ostatue-ta.

Sartu ei san da jentill orrek, Ra!, atia itxi da berreun arroako arridxe bota ei-tzen atieri atzera.

Juen ei san da su itzela euken, da su onduen an berbetan bidxeek. Eta suen sera eidxeuken, burrunzti aundi bet suten. Da Ra!, alako baten atara gixon erdi

kamañapetik da sartu burruntzidxen da erre ei-dxeban ta jan ei-dxeban da esan eitzen: -I bidxer goixerako. Ta bestie be larri.

Jentill ori jan da pareu sanien sillan, badakixu, olan etzunde, lo karrakadaka da burruntzidxe suten. Da bestie larri. Artu burruntzidxe ta begi bakarra ei-dxeke ta burruntzidxe sartu ei-tzen begittik ta eiñ eban salto bat be d'eskape'otzen. Da ardidxek eidxeke san kortan. D'esin arrapeu. Esin arrapeu ei-dxeban, da jentill orrek ra! atiori sabaldu apur bat, olan itxi moduen ipiñi, da ardidxeri deittu da ardidxek orroien, lantzien bat jun eitten dxakosan.

Da ardidxek akabeu bier. Da bestie larri. Da narruen bat ei-dxeuken eskeitte postien.

Da artu narru bat. Eldu otze narrueri da aidien eskap'otzo bestiek kampora. Da anilloen bat eidxeke arek jentillek, anillo ederren bat eskuen. Da jaurti ei-tzen. - Eutzo au, eutzako. Da se eiñ ddeu bestiak, artu t'esteu sartu atzamarrien? Da gero ba anilluek: "Amen nadxaok, amen nadxaok, da arrapeu bi-uat", anilluek berba. Da juen arri kontrara, da jo arridxas da atzamarra apurtu ta bota ei-dxeuen erre kara da jentille anilluen atzien erre kara. Errekan bueltaka, an galdu bier ix'e ban.

Felix Zamalloak batutako ipuinak (Anuario de Eusko Folklore, 1, 1921, 107-108)

"Un señor viajaba a pie en tiempos en que apenas existían todavía aparatos de locomoción. Cuando, a causa del cansancio, se echó a dormir en la tierra, le molestó tanto durante le sueño un sarmiento que se le metía por el oído, que luego le despertó. Fijóse en él el viajero y le agradó tanto que lo arrancó y llevólo consigo. Encontró en el camino un hueso de pájaro, y metió en él la raíz de la planta. Encontró después un hueso de león en el cual metió el del pájaro con su planta, y por fin todo ello en el de un burro que halló más tarde. La planta iba adquiriendo cada vez mayores proporciones. Llegó a casa el viajero. Dentro de pocos años aquella vid comenzó a producir racimos que exprimidos producían un líquido. Quiso su dueño experimentar los efectos de este producto. Diólo a beber varias veces a un criado, sacando por resultado de su observación que 'cuando el hombre bebe una moderada cantidad de vino se pone alegre como un pájaro; cuando pasa cierto límite, pónese furioso como un león, y cuando bebe excesiva cantidad se vuelvo tonto como un burro"

El puente de Castrejana

Kastrejanako zubije ezin ei eban amaittu kontratistiek obligaziñoa artu eban denporarako; amaittu orduko beti jeusi egiten ei jakon. Egun bet falta zanién denporia betetako, arrabijoagaz esan ei eban: «Diabruék be etxok au zubijeu amaittuten».

Etorri diabruék eta bierrien asi ziren. Bildur aundije eukan zer jazo bier ete jakon eta artu martiko ollar bat, eroan zubijen ondora eta esan eutzan:

Martiko ollartxu, gorrije,
Balijeu zakidez balije,
Ezpabe joan da nire bizije.

Gabeko amabijetako txingadak asi zirienien, ollarrak kukurruku egiñ eban eta orrek kukurruku orrek aldenduazo egiñ eutzien díabru guztijeri, zubije arri baten faltan itxirik. Ori arrijori eziñ ei deu iñok ipiñi. (An. Eu. Fo. 2, 1922, 94)

Las laminas

Lamiñe bat arrapeu ei ebien bein Zeberijo´ko Lamiñerreka deritxoen errekien urreko gixonak, eta eziñ barbarik eraso ei eutzien. Gomuteu zirien oso esne zaliek ziriela, eta orregaittik ipiñi ebien esnie egosten su ganien; eta irikitten asi zanién, asi zen lamiñe sarataka: 'Txurije gora, txurije gora'. Gero itandu eutzien lamiñek zelan galdu eikiezan, eta erantzun eutzien, egozan lekue San Juan egunien jaijo-eiko sekor nabarrakaz itelletute. Lamiñerreka- ondo guztije itelletu ei ebien eta orduentxe lamiñe guztijek aldendu zirien andik. Emendik a kantie:

Liñoak liño beratu;
Liñoak bierrak dittu:
Lenengo sopixertu,
Bigarren laijetu.
A. E. Fl. 2, 1922, 96

'Iru estudiante euren bakaziño aldijen joan ziren erri batzuk ikusten. Geu baten agindu ebien ostatuen ipintteko iruentzat aparije, eta ipiñi eutziezan ollasko bi arrosagaz. Euretari batek esan eban ia oba elitzatekijoen ixengo a aparije urrungo eguneko goixerako istie, ba geubien baño obeto egingo ebiela digestiñoa egunes, eta beste bijek egije sala erantzun eutzien; orregaitik ba gorde aparije eta joan ziren ogera. Goixaldien itxartu sanien bat, gose aundije sentidu eban; altzeu da ogetik, apari gustije jan da ogera. biurtu zen ostera. Egune argittute jagi sienien, batek bestieri esan eutzan: -iMutil nik egin joaz amesetak! -¿Zer egin dok ba? -Parisetik, Londresetik, ibili nazela egin joat, ¿Ik estok ezer egin? -Bai, eta asko; nik be euk lez egin joat (ixenteu zituen uri aundi batzuk)... etik... etik eta ibili nazala. -Ori ixen dok suertie bijok geuze baten ganiien egittie. ¿Ik eztok egin ezer? esan eutzan irugarrenari, irri barre egin-dde, ba erdi lelotzat eukien, eta onek erantzun eutzien: nik uste ixenik zuek aiñ urriñetik ibilitte etziñiela etorriko, barko apari guztije jan doat'.

Un sucedido

Sarri entzuten gendun gaztetan ama baten zazpigarren semiek birtute andijek eukiten ebazala, eta miñien eta esku-barruetan be kurutze bana eukiten zittuela.

N'k, sei seme eukezan, eta zazpigarrena be bidien. Orduen jentiek esate-eban semie ixeten ba eban suerte andije ixengo ebalá. Nik esaten neutzien barrix orrek birtutiok eukitteko Gabon egunian jaijoak ixen bier ebalá. Suerteu zan gero mutile ixetie, eta fijeu zan jentie, kurutzerik ba-eukan edo ez-paeukan, baña ezeutzien topeu. ¡Jakine! Gabon-egunien jaijoak ixen bier deuelako.

(An. E. F. 2, 1922, 80)

ITXUSKIA KURUTZE

Durango inguruan, Orozketa deritxoan goitxu baten Santa Luzia izeneko atx bat dago eta atx onen ondoan etxe bakar bat goialdearen izenekoa: Orozketa. Gaisorik ezarritxu eukien Orozketan etxeko gizonik zaarrena. Ilgo ete zanen bildurrez, gaisoaren seme etxeko jauna Durangora yatsi zan goiz baten abaderen baten billa. Fraile batengana yo eban. Laguntzat fraileak Motxo eritxon sakristau zelebren bat eroan eban beragaz. Gora ta gora noizbait Santa Luziara eldu ta Orozketan sartu ziranean fraileak gaisoaren gelan sartu aurretxoan kurutzea eskatu eutsan Motxokori.

-Oleazino ta estola ta bear doguzan beste zer guztiak emen daukadaz, frai Andrés. Orixe ez, aztu egin ddat. Baina ziur bertan dauke kurutzea. Etxekoai eskatu eta ez eukela erantzun eutsenean, Motxokok: -Itxuskirik ez al daukazue -itandu eutsen. Itxuski bat laster eskuratu eutsen eta Motxokok beko besotxoak kendu ta kurutzetzat fraileari emon eutsan. Fraileak orduan gaisoari kurutze barria erakutsita, -Nor egon zan emen?- itandu eutan. -Or, or... -Bai ementxe, nor egon zan? -Or matazea, jauna. Fraileak au entzunda lagunari: -Motxoko -esan eutsan- au eztok ilgo. Goazan geure bidean. Eta batak au ta besteak ori esanda, laster yatsi zirean kalera frai Andres eta Motxoko. Arik egun batzuetara Orozketako gizon zarra Durangon ebillen. Fraileak bera ikusita, Motxokori etorri eraginaz esan eutsan: -Basilio, ¿eneuan nik esaten? Aor daukak ori sendo ta bizkor.

(AZKUE, R. M, Euskalerraren Yakintza, 2. argit. Madrid, Espasa-Calpe, 1966, 2. tomoa, 195-196)

San Cristobal para Busturia año de 1787 Vascuenze

Si quis vult post me venire abneget semetipsum (Mat) cap. 15

Gustis obligauric aurquitu san Atenasco Ciudadea, vere onguilla Demetrioni, vere livalidadea, eta prudencijagas, favore asco, eta andijac artun citubalaco ascotan. Correspondietaco deseogas al zan moduban, dino aita Masculoc, alzau otzesan urreac eguinic daucan veste estatua. Alan publiquetan ebela euren agradecimenduba irureun da irurogeta vost estatuagas bada usalegues ygaro egunic Demetrioen beneficijo, ta favoreac artun bagaric escirudijan ondo Atenascoetan faltetea testimonijo eta memoriya barri bat, estatua bacochean, mundubari eracusteco Yraunten ebala curetan Demetrioen estimacinoi eta agradecimenduba. Nor dago bada, neure ensunlarijac San Christovalengaña fede odosoagas (sic) eldu esquero, vere favoreac artun es ditusanic. Dino bada aita san Ambrosioc Christovalec ain virtute eta gracia andija alcanzau ebala Jaungoicoen aurean, ce alcanzau ebala aren magestadea ganic, gach eta geisoac quendutea.

Usetan san legues bada achina gentilen artean ateetan efinitea Ercules armas cargauric letra onecas: gausa deungaric sartun ceditean alan usetan da Christiandadeco lecu ascotan, eta particularean Valenciaco Erreinuban, efinitea San Christovalen imagina ateetan eta etceen sarsaijeretan. Eta cetaco? Gausa deungaric sartun ceditean esango dogu. Etzeac gordetaco euretan gausa deungaric sartun ceditean. Orregaiti dino Tamaioc San Christovalen Imagina, Eleisetan, eta capillen ate, edo barruban pintetaco motivoa dala, letra onec dinoena, San Christovalen arpeguija defendietan davena, esta egun atan ilgo eriotza deungagas. Ce escelencija andijago ysan liteque, vere devocinoia viotzean artun eta gueugas veti vera eroateco edota vere, gueure ona veguiraturic, orregaiti (sic) bada Valenciaco Ciudadean esta aurquituten etzeric San Christovalen Imagina aurquituten estanic, ain fede andija dauquelaco vere imaginan, ce vera euquijagas bacarric uste dave librauco diriala, Zentella eta gausa deunga gustietaric, Andijac dira vere escelencijac, baia esta chicarrago vere ycena. Propiedade gustiagas dauco gure Salvatzallac Christoren Ycena ungiduta ysan salaco sacerdote, profeta eta erregue legues. Es achinacoac legues olivoen orijoagas, espada gracia eta doi gustien orijo divinagas (sic).

Sermón de los Dolores de Ntra. Señora en la sexta feria después del domingo de Pasión predicado en la villa de Ochandiano.

Año de 1831

Stabat juxta crucem Jesu Mater ejus.

Joan cap. XIX

Egun negargarria benetan , C[ristinauok], gaurco eguna: Negar eguiten dau eguzkiak ta bere eguillea negarrezko iturrietan ez icustearren ichiten ditu bere vegui argiac. Negar eguiten dau lurrac; eta ecin sufriturik bere ganean Jaungoico beren eriotza, botaten ditu bere sorbaldetatic mendiac. Negar eguiten dau ceruac; ta araco baquezco Aingueruac euren zoriona galduta baleunden legues negarres beteric aguertuten dira. Eta asquenes Sn. Leonec diño Jesus Crucificadua izan zanean criatura gustiac eracutsi eben euren sufrimentua. Eta guisonoc bacarric izango guñatequez negarretan ain prestuezac? Esta justo, N[eure] E[ntzule] M[aiteok], ain erruqui guichi eracusten Jaungoico baten agoniaren aurrean verba eguiten dogunean

Ama errukiorra bere aurrean dabela. Orregaitic Jeremiasen negarrac eta Aingueruen espiritua bear neunquez berba goitia negar eta Serafinen espirituagas sututeco ta onela zuen viotzac lastimia ta erruqui bigun batean ifinteco. M. SSma. icustorduan Evangelista sagraduak dirauskun estaduan, au da bere seme Jesus esquegirik eguen grutzearen alboan sutunik

Sermón de Animas con todos requisitos. Predicado en la parroquia Santa María de Guernica, a la congregación de sacerdotes por Dn. Juan Cruz de Lecertua. Año de 1841

Memor esto iudicii mei, sic enim erit et tuum, mihi heri tibi hodie. Eccl. Cap. 38. v 23.

Gomuta santu eta provecho anticua da ilac gaitic Jaungoicuari erregututai ainbat lasterren azcatu danzan euren pecatuben sorretatic; leiduten da Macabeoen liburuban. Evangelijo santubac dino bañua artutetco beguira aguan perlesijasco guexo batec esaten eutzala Jaunari Domine hominem non habeo. Jauna ogueta amazortzi urte da bañuaren beguira, ala, pena eta tormentu onetan aurquituten nazala Anguerua urari reagiten jasten danian, estaucadalaco noc eskua emon bañu miragarri onetan sartu eta aterateco. Jaquiturijaco liburuban ifinten deuscu Espiritu Santubac gueure anaije defuntuen arimac urria legues garbituten dirian toqui bat; nun icharoten ditubezan arima oneec gure soocorru, sacrificijo, limosna eta obra on gustijen indulgencijac. Bada onixec bacarric dira euuren alimu, pozgarri eta consuelua. Alimu, pozgarri eta consuelo au aurquitu gura izan eban Job santubac araco desdicharic andijenian aurquitu zanian bere adisquidiac Gandia. Baña bere adisquide gogorrac lagundu biarrian guizon santu oneri, icusiric beingo baten fortuna eder eta aberastacunic andijenetic, satz lecu atzitu bat bere oguetzat euquitera biruturic, bere gorputz gustija burutic beatzera sarnazco zauri usted bat eguinic; tella coscorchu bat baña beste gauzaric bere escuetan ez ebala bere gorputz ustelduco aarrac quentzeco; ustelrun (sic) et aar oneeri bere aita, ama eta anaijac dei eguiten eutzeela; estadu triste edo desdichadic oneta, ez eutzeen gueijagorado balijo izan bere adisquidiac, burla eta barre eguiteco baño. Estuturic bada guizon erruquigarri onec bere adisquidien gogortasun eta esaupide faltia, eregui cituzan bere beguijac Jaungoicuagana eta dirautzee: Cer gaitio yarraitu ea necatuten nozue neura adisquidiac Jaungoicuac legues, eta asetuten dozue ceuben gosia nire araguijacaz?

Erruquitu zaitezee bada, ce Jaunaren escubac sauritu nau. Sispuru eta quexa onexec dira N[ire] C[ristinauac] pecatuban yaustia baño beste erruric estauquen arima bedeincatubac purgatorijoco zu garren erditic gure contra Yaunaren aurrian ifinten dituesanac.

Sermón de Animas

En Echano Año de 1842

(...) baquezco loo gozoan il zirian arima justoaac eta caridades janciric euren asquenengo arnasia emon eben arima santaac dagos orain Jangoicoaren pusicijaren biar lecu eguinic eureen pecatu eta iperfesinoe gustijaren satisfacione osoa emo artian. Bada fediac eracusten deuscu, parcatu arren Jaungoicoac pecatu mortal gustijac confesinoe eguijasco baten bitartez biurtuten dala eternidade baten purgadu viar eban pena edo castigaba, demporas pagadu biar dau pena edo zor izaitera; zeñen satisfacinoia emon biarco dan mundu onetan penitencia eguiascoacas edo Purgatorijoan pena eta tormentu iqueragarrijecas. Pecatu benialari bere jatorco zor au sein pagadu biar dan mundu onetan edo Purgatorijoco toqui illunian; zeñetan castiguetan ditudan Jaunaren gusticijas arteraco pena eta tormenturic gogorrenacas; aric eta gustiz zuritu, garbitu eta edertu artian. Pena iqueragarrisco oneen erditic diedar eguiten dave arima triste oneec; baña ez dautzee iñoc bere jaramonic eguiten. Ereguiten dituez gorago eureen aijari, zispuru eta zotin larrijac; eta beti dagos len-baten /sen-baten? Esagaturic bada Jaungoicoaren justicijaren artestasuna ez dabie beste erremedijoric aurquituten espada biurturic guganz, zispuru eta zotin lastimagarrijen artian diadar eguitias dirauscuela: gomuta zaitesee nire egoquera triste eta gogorragaz bada niria leescoa zuria bere izando da; emenche nago igaro esinic, eta dempora guici barru egongo zara zu bere.'

Libro de sermón 1845. Garaita

Yracaste VIII

Celan beneteco Proposituba dan Guztiz gacha alan osasunian, celan erijotzaco egunetan, ecandu dongueetan sarturic dagozanetan.

Iracatsi dogu irago dan dotrinan, cer dan proposituba, ta nundi igarrico dan bere sendotasun, edo argaltasuna. Baña dacuscun orain, cein gauza gacha dan vicijo edo ecandu donguetan sarturio dagozanentzat y Nundi dator cristinau asco egotia bildurbaga ezizen pecatuben artian, edo vicitza donga ta guzti ?

Dator beguitanduten jaquelaco confesino on bategaz nos edo nos alcanzauco debela peca[tu] guztien parcacinua; ezagutu biarrian gueruago ta gachago eguingo jaqueela bijotza onera giretia. Baña cein zoraqueria andia! iNor da bere vicitzaren jauve? ¿Noc daucaz eriotzaco guiltzac? Jaungoicuac. Noc neurtuta imini ditu gure egunac? ¿Nori emoten deutsa contu jaunac nos izango dan vicitzaren azquena? ¿Eta artuten bagaitu eriotziac uste bagaan onduiteco asmo soill, ta zoruacaz? ¿Salbauco gaitube guero onduiteco gogo edo propositubac? Datorren urtian batuco dan garijagaz jango da aurtien. Ynfernuba beteric dago propositu onez, dino San Bernardoc. Cristinau guichi dyra Judas leguez ernegau ta galdu dyrianac betico. Gueijenac condenetan dira salbeetaco ustiaz. Espiritu Santubac estalqui бага dino, gaistuen egunac laburtuco diriala; gabaz, lapurra leguez, etorrico dala eriotzia. Beraz luzabide zoruacaz, ta pecatubac pecatubei gueitubaz iminten dabee cristinaubac arima iños penitencijaric ez eguiteco arrisccu ezagunian.

E[ntzule] Enzuzu bada ocasino donge batzuc izatia ezagun, urreco, ta vorondatezcuac euren indarrez dator dauquelaco ariscu edo peligru jaquiña ceñean jarri ezquerro, ezagutu biar dan galduco dala gueienez. Onelan liburu desonesto, ta contu zantarretacuac iracurtia premina бага, ta guztiac edo gazte moducuac, da vide ezagun ta urrecua pecatu loiraco, bada alango iracurleric gueijenac galduco lirate. Onelan beste gauza ta ibilune asco guero ezango dogun leguez. Beste ocasino, edo jausgarri batzuc dira euren ez dabeenac gacheraco indarric, baña lagungarri edo circunstancijaren bategaiti dongaac urten dauenac. Cale batera juatia, auzo echian sartutia, berez gauza charrac ez da [dira]; baña cale edo eche aetan badagoz tentatzalle gaistuac, edo lengo adisquide pecatuzcuac, izango litzate ocasino benetacua alango lecubetara juatia. Bardin beste bategas verva eguitia pecatu ez da

berez; baña berba eguitera badau jaquinic emongo deutzala pecaturaco vidia, orduban berba eguitera juatia da pecatuco ocasinuan jartia. Ocasinua da ez[a]gun, urreco ta jaquiña, cenian sartu esquero, jarten da bat pecatu eguiteco arriscuban guizon situ, edo jaquitunen erechijan, edo nor berac lenago irago jaconeti ezagutu biar dabenian. Ocasiono urrineco, lecu guztietan dagozanetati, ecin alde eguin guinai mundu onetan vici gaian artian, baña bay ezagun ta banacuetati. Ocasino donga ezagun ta urrecua izan leite, edo gurazcua, edo gurabagocua. Ocasiono gurazco edo vorondatezcua da ceñetati alde eguitia dagan bacocharen escuban, ta onelanguac dira gueijen gueijenac. Guraezeco, edo vorondatiaren contraco ocasinoc dira, ceintzobetati alde eguitia ez dagan bacocharen escuban, ta onelanguac dira chita guichi.

Sermón de Santa Teresa predicado en el combento del Carmen de Marquina el año 1863 por Fr. Pío de Basterrechea

Quaesivi sponsam mihi eam asumere eta amator factus sum formae illius.
Cap.8, Sap.

Yños osoro eta vijost (sic) gustitik esan albalei predicadore batek beteco dituzala bere entzulen desiuac izango litzateke duda bagaric gaurco eguneco virgiña entzute andico bateri consagraurik aurkituten danian. Bada ce argumentu ventajosuagorik ifini leike aurrian suertiac santa bat alabetako empeñua baino? Zein virtuteric andijenen vitartes eldu zan, mundu onetan criatura bat capas santutasunic gueneñera? Virgina bat ceñegan batu cirian Susanaren inocentziya, Esterren fervoria, ceñ dempora baten izan zan apostoluba, profeta edo Igarlia eta Legue emoillia, Pablo barri bat, bere estasijatan, eta Agustin barri bat bere escrituetan. Esan dot eta ez naz desesaten...iCe atseguñesco motivo andijagoric prestau leique fortuniac miragarrisco Teresaren Gaztelaco gloriya eta edertasuna, Carmengo Remorfadoria, (sic) Españaco izar arguitasunez betia, arimaco gauzetan Doctore, edo iracaslia, piedade edo santutasunaren Ispillua eta Virginen arguitasuna danaren alabantzac cantetia baino? Nic autortuten dot Teresaren icena aitatutiagas bacarric concorturik gueratuten nazala nere gaurco goisseco lanaren anditasunaren gomutiagas, eta berau ondo betetaco bildurres, dalaco gustis gacha, eta nire indarren ganeticua, bada neure imaginaciñoa edo irudiguilliac adierazoten emoten deust ce, bere vicitza miragarriscua ez dala beste gauzaric, ezpada inos entzun ez dan miragarrizco mapa, edo irudi vici bat baño. Bada iracurten baditut bere eguitade andijak dacazan Liburubac, icusten dot bere

lelengo urtietan, religiñozco soldauric valerosuen bija arturic, egas doiala bere fervore edo devociñoiaren eguetan eguberdi parteco Erreiñuetan emoteco bere esposuaren honrriagatik bere sanetaco odola. Beguiratuten badeutzat bere udebarrico edadian, dacuts (sic) gustis poderosuaren escuagas berriro formauroico arima bat, Jangoicua ametaco naturalectia capas dan guiñuen jantziric santidade gustisco bategas, eta ederturic ordura artian casic Elissan (sic) santan ez entzundaco doi miragarrijacas. Gogoratuten baditut bere plumiaren volada edo egaera lasterrac, irudituten jat beste Elias bat leguez jasoric, contemplaciñosco burdi misterijosuan edaten dabela araco jaquituriya gustis jasua, divinidadiaeren bularrian bertan , ceñec distinguiduten daben Doctoreric andijenen artian merecietan ditubala jaquitunen alabantzaric andijenac, eta obliguetan dabela Eleissia santia canonitzetara, edo erabaquitera arguitasunen Aitac inspirau, edo gogo arguitutaco etorrera diviñu, edo Jangoicoscotzat .

SERMON DE LA VIÑA

Auferetur a vobis regnum Dei, eta dabitur genti facienti fructus ejus (Mateo c. 21, v. 43)

Verba itzaltsuak dira benetan Sn. Mateoren Evangelio Santuco ogueta batgarren capituluan iracurten dogusanac; verba onec esan eutsezan Jesukristo gure Jaunac judeguei, icusiric euren gogortasun andiya eta esquer baguetasuna, bera eta bere eracutsi santuetaraco. Eguin cituban aleguin gustijac Jesusec judeguac conbertietaco, baña icusiric alperrecuak ciriala bere alegin gustijac onetaraco ipiñi eutsen irudi bat aitu eguijen ondo euren gaistaquerijaren anditasuna es entzun nai izatian bere amodijosco deijaac. Aita batec ciracutsen Jesucristoc, aita batec eguiñ eban maasti bat, inguratu eban alde gustijetatic lagares... eta guero emon eutzeen biarguiñ edo labradore batzuei mastijan , onec euqui eguijeen bere contua eta emon eraguin eguijubesan frutu ugarijac ugasabarentzaco; juan zan ugasabau campo urriñetara; eldu sanian mastico frutuac batuteco demporia, bialdu cituban aita edo ugazaba onec bere otseinetati' (sic) batzuc, frutuac edo errenta artuteco, baña labradore edo erreteru gaistuac icusi citubedian ugasabaren otseinac, entregau biarrian oneri, ugasabari emon biar eutsen errenta edo frutuac, ezarri eutseezan escuac, bat ill eban, beste bat heridu ebeen, eta beste bati arrica eguiñ eutseen; bialdu cituban ugasabac beste otsein batzuc lelenguac baño gueijago; eta onec bere bardin lelenguac legues trataubac izan ciran; asquenez bialduten dau bere

seme bacarra ugazabac diñuala bere artian: Obedituco deutzee neure semiari: "Verebuntur filium meum". Baña labradore areec icusi ebeenian ugazabaren semia, cirautseen alcarri: ara emen maastijaren jabeagua edo herederuba; il daigun eta gueuria izango da mastija; eta gueijagoco бага аtera eben mastiti campora eta il eben gogortasunic andijenagas heredeuba. Au parabola edo irudijan esanic Jesucristoc, itaundu eutseen entzuten egozan Escriba eta Fariseo arruei: cer derichosubee? Cer eguingo dau ugazabac datorrenian, icuciric erreteru edo labradoriac euqui daben gogortasuna bere otseiñ eta seme bacarragas? Eta dirautsee judegubac: castigauco ditu gogortasunic andijenagas; quenduco deutsee mastija eta emongo deutsee beste batzuri, ceintzubece bere demporan emongo deutzeezan ugasabari frutu ugarijac (Ondo erantzun dozubee diño Jesusec) ondo erantzun dozubee, ceubece zaree. Jaungoicuac eguin deutsebezan mesede apartecuari vicitza santuaren frutu ugarijacas erantzun biarran, Jaungoicoaren otseiñ, Profeta edo igarla santuac, ill, eridu eta arrica eguin deutsa- zubenac, subec Aita Beticuaren Semia il dosubena; orregaiti bada dirautsubet: Quenduco jatzubee Jaungoicuaren erreiñua eta emongo jaquee beste batzuei, ceintsubec subeece baño frutu obe eta ugarijaguagas erantzungo deutseen Jaungoicuari: Auferetur a vobis regnum Dei eta dabitur genti facienti fructu ejus.

Ah!, Sion, sorigaistoco Sion, ez deutzubee oraiñ adieerasoten igarla santuac, peste uguerra icaragarri bat; estira profeta edo igarla santuac oraiñ adierasoten deutzubenac ceure ciudaderic ederrenen auts biurtutia, famelijaren cauteverijo gogorra; Ah!, onec castigu gustijoc etsiran Aita erruqior baten avisu bigunac baño;ceintzucas аtera nai cenduzan ceure bide galdubetati'; baña orain zure gaistaquerijoc Aita biguinau biscortu dabee juez gogor eta alan botaten dau zure gañera condenaciñooco sellu edo marquia, quenduten deutzula ceruco erreiñuco herentzija ederra, emoteco gentillei, ceintzubece suc naño obeto erantzungo deutesen Jangoicuaren mesedieni: Auferetur etc. Bai, n[ire] c[cristinau] m[aiteoc]. judeguben naciñoec ederra, ceñ esleidu eban Jangoicuac bere misericordijacio ondasun ugarijac bertan eracusteco; naciñoec apartecua, ceñen oneraco Jangoicuac eguin cituban mirariric andijenaac; araco naciñoec ederra beste gustijen artean apartecua, Jangoicuagandi artu cituan mesede andijaacgaiti; naciño au, orain bere gaistaquerija eta Jangoicuaren mesediac ganaco esquer charragaiti gueldituten da apartauric bere Jangoicuagandi; eta billosturic ceruco ondasunn ugarijetati; auxe gustijau esan nai dau Jesucristoc judegu gogorren contra bota eban epai edo setentzija onec: Auferetur etc, Quenduco jatzubee etc. Esta benetan bildurgarrija epai edo setentsijau? Etzaree

bildurtuten pentsauric ceubec bere artuten ete zaitubezan verba itzaltu onec? Erantzun deutzazubee esquer onagas Jangoicuagandi artu dozubezan mesede ugarijei? Pentsamentu bildurgarriscua da au, baña alan da gusti bere cerbaist (sic) esan baga ecin ichi neique berorren gañian; bestelan es neuque bete edo cumpliduco neure eguin biar edo obligaciñua, bada Jangoicuac aguinduten deuscu Ezequiel igarla santuaren bitartes adierazo daijogubela pecatarijei euren gañera etorrigo diran castigu gogorrac, aurretijez penitentzija eguiñic urrindu deijeen eurac gandi Jangoicuaren justicijaco golpe gogorra. Orregaiti precisocua da nic subei adierasotia Jangoicuaren juicijo zucena, puntuan asaldudodan parabola edo irudijan arguiro ezagututen dana modu onetan bildurturic judeguei bota eutzen sermojagas, atzeratu daigun golpe icaragarrijau vicitza on baten bitartes; bada cemaijau etzan judegubentzat bacarric baita bere eta oraindiño gueijago, cristiñau esquer gaistocuentzat. O Aita beticua!, ceiñen beguiracune bacar batec icara eraguiten deutzan mundu gustijari; emon eguijuzubee indarra nire verbei istante onetan pecatarijac bildurtasun santu bategas betetaco; biurto daitesan penitentzija eguijacua eguitera, alan atzeratu daijeen zure justicijaco golpe icaragarrija, gracijau escatuten deusut etc. Ave M^a